

AURKITU ALA HIL: Mexiko
100.000 desagertuen landa
gainditzeko zorian dago > 8

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Bortxaketa automatizatuak eta
eskubide atzeratuak **RAMON SOLA > 11**

2022ko maiatzaren 21a | XVI. urtea • 774. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ZEGAMA-AIZKORRI, BUELTAN

PANDEMIAK BEHARTUTA BI URTEAN KORRITU GABE GERATU ONDOREN,
MAIATZAREN 29AN ITZULIKO DA ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA, EUSKAL
HERRIKO TRAIL OSPETSUENA ETA JENDE GEHIEN BILTZEN DUENA. > 22 Gorka RUBIO | FOKU



8



12



Nury Martinez, Fensuagro
Kolonbiako nekazari sindikatuko
presidenteari elkarrizketa 04

Mexiko, 100.000 desagerturen
langa gainditzeko zorian 08

Burmuinaren garapenaren eta
gizakiaren portaeraren arteko
harremana aztertu dute Bilbon 12

«Hazi Hezi», 10 urte familien eta
hezitzaileen helduleku izaten 16

Zegama-Aizkorri bueltan da bi
urteko geldialdiaren ostean 22

Ikusmira: Idoloak 26

Homofobia eskolan, amaitzen ez
den errealitate kezagarria 28

Juantxo Egaña, Behatxulotik:
«Ega» autobusa 1920ko udan 31



17



28

SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Irlanda
 10 **Oier Gorosabel:** Voltaire gure laguna
 11 **Ramon Sola:** Bortxaketa automatizatuak eta eskubide atzeratuak
 17 **Alai Zubimendi**
 20 **Gorka Etxebarria Dueñas:** Eguzkiari topa
 21 **Amaia Nausia Pimoulier:** Hilekoa
 27 **Joxean Agirre:** Isunak
 27 **Amagoia Mujika Telleria:** «Ez da hainbesterako, neska»
 30 **Arantxa Urbe:** «Berdina» eta «parekoa»: ñabardurak



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Irlanda

Irlandako hauteskundeak eginda, gaur egun horren maiz gertatzen ez den bezala, aurreikuspenak bete dira. Sinn Fein suertatu da alderdi bozkatuena eta hauteskunde emaitzekin batera enegarren krisi politikoa piztu da Irlandako iparraldean. Unionistak ez ei daude prest Ostiral Santuko Akordioa bete eta Sinn Feinek zuzenduko duen gobernu bateko kide bilakatzeko. Orain arte alderantziz izan da beti, eta hori gertatu den bakoitzean unionistek arazo gutxi izan dute Sinn Feinen babesarekin Stormont zuzentzeko. Egia da Ostiral Santukoaren biharamunek agertokia eta gaur egungoa ez direla berdinak eta egia da, era berean, azken urteetan elkarrekin gobernatzea oso zaila suertatu zaiela. Eta ez da harritzekoa, jatorri eta helburu oso kontrakoak baitaizkate. Ziurrenik egunen batean, uste baino lehenago agian, 1998an adosturiko betebeharrak hori moldatu beharko da, Irlandako iparraldeko instituzioek euren lana egitea nahi bada gutxienez, baina bien bitartean unionistek ematen dituzten arrazoiek galtzen ez dakien eta baloia zulatzen duen umearen antza dute. Adi, batzuk antzeko musika jotzen saiatuko baitira gurean ere datozen udal hauteskundeak egin eta gero.

Irlandara bueltatuz, hegoaldean egin berri diren inkestek Sinn Feinek igotzen jarraitzen duela adierazten dute eta gero eta garaipen nabarmenagoa lortuko duela adierazi. Ekaitz perfektua, historian, momentu berean, hego eta iparraldean irabaztea. Oroitu azken hamarkadetan errepublikanoek batean eta bestean izan duten babesa oso ezberdina izan dela eta azken hamarkadan bereziki egoera hori zuzendu eta euren influentzia lurralde guztira hedatzea lortu dutela. Ez da kasualitatea; egungo garai likidoetan, oso erraza da politika konbentzionalaren zurrumbiloan galtzea, egunerokoan itotzea eta epe erdi eta luzera begiratzen ahaztea. Hori egiten duten mugimenduek momentu zehatzetan emaitza elektoral onak edo babes handia erdiestea lortu dezakete baina ez dute sekula garaipenik lortuko, eta ziurrenik denboraren poderioz urtzen joango dira.

Egia da Ostiral Santuko Akordioak erabakitze eskubidea aitortu eta arautu zuela. Baina egia da ere irlaren

batasunaren inguruko erreferendumak, bi egin behar baitira, Sinn Feinek hego eta iparraldea zuzentzen dituen bakarrik egingo direla. Irakaspen hau erabakitze eskubidea sekula aitortua izango ez duten estatutik gabeko nazioentzat ere irakaspen eta iparorratz izan daitekeelakoan nago. Zein da, beraz, erreferenduma egiteko berme nagusia? Eskubidearen aitormen formala edo erreferenduma burutu nahi duen indar politikoaren indarra eta determinazioa? Aukeran emazkidazu biak faborez, baina dudarik ez izan autodeterminazio eskubidearen aitormenik ezak ez dakarrela bidearen amaiera. Eskozia kasu.

Eta egun hori gero eta gertuago dago. 1968, 1978, 1988, 1998, 2008 edo 2018an irlaren batasunak ametsa zirudien. Bada, ametsa errealtate bilakatzen ari da, eta ez da kasualitatearen emaitza, estrategia eta zuzendaritza politiko sendoak emandako emaitzen ondorio baizik. Urte, hamarkada luzeak, mota guztietako sufrikarioak, barne eztabaida amaigabeak, erabaki zailak, kontraesanez beteriko bidea... Gerry Adams-ek berak momentu oso diferenteetan botatako bi esaldi ekarri nahi nituzke gogora, bide hori ongi ilus-

Egungo garai likidoetan, oso erraza da politika konbentzionalaren zurrumbiloan galtzea, egunerokoan itotzea eta epe erdi eta luzera begiratzen ahaztea

tratzten dutelakoan: «Bakea egitea gerra egitea baino zailagoa da» batetik, eta «negoziazio zailenak etxekoekin izan dira», bestetik. Dudarik ez izan militante fin asko direla honen guztiaren erantzule. Batzuk bidean geratu ziren, beste batzuk bidearen une zehatz batean haserretu eta bide bazterrean geratu ziren, estrategia ezberdina bultzatzen hasi zirenak ere egon dira edo zuzenean behin kide izandakoen kontra jarritakoak, badira ere beranduago militantziara eta mugimendura gehiturikoak. Bertolt Brechtek adierazi bezala, guzti-guztiak dira beharrezkoak, baina ezinbestekoak egunero, beti egon diren, dauden, horiek dira. Irlandar haurren irribarre garaia iritsi da. •

«Itun Historikoa koalizioak lurren gaian proposatutakoak itxaropen handia sortu digu»

Fensuagro, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sindikatu Federazio Nazionalea, 8oko hamarkadaren hasieran sortu zen Kolonbian. Landa eremuko erresistentziaren eta nekazarien eskubideen defentsaren erreferente bilakatu da geroztik. Horrexegatik, jomugan kokatu dute herrialdeko elite politiko eta ekonomikoek. Fensuagrok 57 kide galdu ditu, 2016. urteaz geroztik, indarkeria politikoa- ren ondorioz.

Elsa Nury Martinez Silva Fensuagroko presidentea da. Emakume izateagatik eta nekazarien erresistentzian egin-kizun politiko garrantzitsua aurrera eramateagatik, modu sistematikoan jasotzen ditu bere buruaren eta familiaren kontrako heriotza mehatxuak. Dena dela, horrek ez du agortzen horrenbeste urtetan zehar ondutako irmotasuna, ezta bake alternatibak eraikitzen jarraitzeko premia ere. Berarekin solasaldia izan genuen Nekazarien Borroken Nazioarteko Egunaren tes-tuinguruan, joan den apirilaren 17an. Une honetan, Kolonbian indarkeria bolada berri bat piztu da hauteskunderen atarian. Giza eskubideen urraketak Kolonbian inoiz eten ez diren arren, egunerokotasun beldurgarria azaleratzen eta ugaltzen jarraitzen dute, nonahi, nahitaezko desplazamenduek, desagerpenek eta giza eskubideen defendatzailen aurkako erasoek. 62 lider eta bake akordioen 18 sinatzaile hil dituzte aurtan.

NURY MARTINEZ

FENSUAGRO-KO PRESIDENTEA

Nury Martinez, Kolonbiako Fensuagro Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sindikatu Federazioko presidentea, herrialdearen egoera du aztergai elkarrizketa honetan.

Jone Bilbao Lopez de Armentia – Mundubat fundazioa



Fensuagroko presidentea, Nury Martinez. FENSUAGRO

«Positibo faltsuen» mamua ere berpiztu egin da azkenaldian. Armadako hainbat goi kargu militarrek kolonbiarrak urteetan itxoiten egon diren unea eskaini dute duela gutxi Bake Jurisdikzio Bereziaren aurrean: lehen aldiz aitortu dute modu sistematikoan zibilak epaiketaz kanpo exekutatu eta, ostean, bajan emandako gerri-llari gisa aurkeztu izan zituzte- la. Baina, egiaren aitormenak, paradoxikoki, errealitatearen gordintasunarekin topo egin du oraingoan ere: Armadak joan den martxoan Putumayoko departamentuan 11 zibil hil os- tean, Defentsa Ministerioak masakrea terrorismoaren aur- kako operatibo gisa aurkeztu zuen.

Hasteko, Nury Martinezi buruz gehiago jakin nahi genuke. Nola deskribatuko zenuke zure burua eta nola lortu zenuen Fensuagroko lehen emaku- mezko presidente izatea?

Hegoaldeko departamentu ba- tekoa naiz, Huilakoa. Familia handia da gurea, hamabi anai- arrebe osatua. Gure ama, haur askoren zaintzaz arduratu be- har izan duen arren, oso akti- boa izan da beti politika arloan. Txikitatik erakutsi zigun gure etxean ez zegoela diskrimina- ziorik, gizonak eta emakumeak zereginak berdintasunez parte- katu behar genituela eta beti kritikoak izan behar genuela. Bere eraginez izan naiz ni beti emakume errebelde samarra.

Fensuagro erakundearen ala- ba ere banaiz. 1989tik egitura- ren parte naiz. Hasieran gaztee- kin lan egin nuen, baina, 90eko hamarkadaz geroztik, emaku- meen eskubideen defentsan izan naiz. 2009an, Landa Ere- muko Emakumeen Idazkaritza- ren ardura hartu ostean, Via Campesina nazioarteko sarea ezagutu nuen eta orduan hasi

zen nire ibilbidea feminismo baserritar eta herrikoia- ren erai- kuntzan. Gai horietan beste he- rrialde batzuetan gertatzen ari zen guztia Kolonbiara ekarri ge- nuen lehen aldiz.

Lan horri esker, gaur egun hainbat emakumek dihardute federazioko oinarritzko erakun- deetako zuzendaritza eginkizu- netan, eta guztiok dakigu hori lortzea ez dela batere erraza. Nik neuk ere erakundeko presi- dente izendatu nindutenetik hainbat oztopo gainditu behar izan ditut. Jendeak, orokorrean, nahiago du horrelako kargu bat gizonei ematea. Dena dela, emakumeok asko laguntzen diogu elkarri eta geure artean dugun ahizpatasuna oso ga- rrantzitsua da. Urrats garrantzi- tsuak egiten jarraitzen dugu ki- de guztiek emakumeok aintzat har gaitzaten. Gure erakundee- tako gizonetako hasi dira uler- tzen emakumeok ez ditugula espazioak irabazten emakume izateagatik, baizik eta aurrera ateratzen ditugun ekimen eta proposamen politikoengatik.

Fensuagrok erasoak jasan ditu, duela gutxi, Kolonbiako zen- bait komunikabide eta sare so- zialetako erabiltzaileraren esku- tik: zuen federazioari leporatzen diote loturak izatea FARCe- kin eta Francia Marquez ezkerreko presidenteordegaia- rekin. Nondik datoz jazarpen ekintza horiek?

Jasan dugun azken jazarpena- ren egilea koronel bat izan da, Senaturako hautagai ohia. Ge- rrillako erakunde bat garela esan zuen. Horrek, federazioko afiliatuen bizkarrean hilarri bat jartzea suposatzen du. Talde ar- matu asko daude guk lan egiten dugun lurraldeetan. Horrelako salaketekin, gure kalteberatasu- na larriagotu egiten da.

Pairatzen ditugun erasoek gure ekimen politikoarekin lo-



Fensuagroko emakumeak Azaroaren 25eko mobilizazio batean. FENSUAGRO

tura zuzena dute. Nekazaritzaren alorrean Kolonbiako erakunde garrantzitsuenetako bat osatzen dugu. 1987. urtean Fensuagro gisa eratu ginenetik, landa eremuko arazoak konpontzeari ekin diogu. Gure aburuz, gerra ez da bukatu, gatazkaren irteerak politikoa eta negoziatua izan behar du, horren jatorria lurraren banaketa txarra baita. Errealitate hori azaleratzeagatik eta sustraitik aldatu nahi izateagatik, estigmatizatu egin gaituzte. Beti lotu izan gaituzte gerrillarekin, eta hemen, garai luze samarra izan genuen non iritziz publikoarentzat gertatzen zen guztia-
ren errua gerrillak zuen.

Gure erakundearen iritziz, gerraren konponbideak nekazaritza erreforma integralean oinarritu behar luke. Proposamen nagusi horretatik abiatu-

«Pairatzen ditugun erasoek gure ekimen politikoarekin lotura zuzena dute. Nekazaritzaren alorrean Kolonbiako erakunde garrantzitsuenetako bat osatzen dugu»



ta, nekazarien eskubideen alde lan egiten dugu, agronegozioaren, lur jabeen eta transnazi-
onalen aurka. Horrexegatik, afiliatu eta militante asko hil dizkigute eta, eskualde batzuetan, erakundea erabat desegin ere egin dute.

Bestalde, zergatik lotzen gaituzten Francia Marquezekin? Une historiko batean gaudelako, aldaketa garaia datorrelako. Herrialde honetan gobernu aurrerakoi bat planteatzen ari gara eta horretarako benetako aukera dugu oraingoan, Francia Marquizen lehendakariordetza formularekin; mugimendu herrikoi eta komunitarioaren baitatik datorren emakumea da. Horrek samina eta haserre eragin du herrialde honetan benetako aldaketa baten aurrean gaudela onartzeari uko egin diotenengan.

Fensuagrok jasotzen dituen mehatxu mezuak ez dira soilik mugimenduaren aurkako ohartarazpenak, baizik eta gure lurraldeak estigmatizatzeko modu bat. Nire familiak mehatxuak jaso izanak eta nik inolako segurtasun eske-
marik ez izateak ere beldur handia sortzen dit. Norberak badaki horrelako mugimendu batean dagoenean, politika arloan diharduenean, gerta dakioken gutxienekoa dela kartzelan sartzea. Familiarekin sartzen direnean, askoz ere ahulago bihurtzen da norbera.

Kolonbiako bake prozesuan aktore kolektibo garrantzitsua izan zarete. Laburbilduko zeniguke zein den Kolonbian bakea eraikitzeke egin duzuen ibilbide historikoa eta zein diren,

zure ustez, Bake Akordioaren lorpen eta gabezia nagusiak?

Urteak daramatzagu lan egiten gatazkaren irtenbide negoziatu eta politikoaren alde: Habana-
ko bake prozesua hasi zenetik, izan diren elkarrizketa, ekimen eta proposamen guztietan parte hartu dugu. Gizarte zibil antolatutako Habanara bidali zituen 400 proposamenetatik, FARCEk 100 jarri zituen mahai gainean; Gobernuak, oster, bat ere ez.

Akordioaren lehenengo puntuak (landa erreformari dagoenak) ez du aurrera egin, eta gobernu aurrerakoi berriarekin hori konpontzea espero dugu. Puntu horren oinarrian dagoen Landa Erreforma Integrala ez zaigu nahikoa iruditzen: Landa Erreforma Integrala eta Nekazaritza Erreforma Integrala ez dira gauza berdina. Azken hori

da Fensuagrotik beti egin dugun apustua eta Bake Akordioan proposatzen dena baino askoz harago doa. Bake Akordioak nekazariez, indigenez eta komunitate beltzez hitz egiten du baina, «lurraldeko beste eragile batzuk» dioen lekuan, industriarekin zerikusia duen guztia txertatzen dute.

Itun Historikoa ezkerreko kolizioak itxaropen handia sortzen digun zerbait proposatu du lurren gaiaren atalean. Hauteskundeetarako programa eraikitze prozesuan, nekazarien erakunde guztiak gonbidatu gaituzte eta gure iritzia eta proposamenak kontuan izan dituzte.

Programan, bake akordioaren ezarpena eta Kolonbian nekazariak eskubide subjektu gisa aintzat hartzeko proposamena atxiki dute. Azken horrek esan nahi du aurretiazko kontsulta informatuetan nekazariok ere barne hartu beharko gintuzketela; edo, nazioz haraindiko enpresek nekazarion lurraldeak ustiatu nahi izanez gero, herri kontsulta lotesleak egin beharko lituzketela.

Hori guztia aurrerapauso handia da guretzat. Petroren eta Markezen egitarauak 1991ko Konstituzioak utzitako hutsune handienetakoari aurre egiten dio: Konstituzioak herri indigenak eta komunitate beltzak aitortzen baititu, baina ez, ostera, nekazariak.

Hirugarren puntuari dagokionez (Bake Jurisdikzio Berezia eta Egiaren Batzordea proposatzen dituen), Fensuagro gatazka armatuaren biktimak gisa aintzat hartu zuten Biktimen Erregistro Bakarrean, nekazaritza erreformaren, elikadura subiranotasunaren, hezkuntzaren eta nekazarien eskubideen alde egiten ari garen borrokenatik. Bakerako Justizia Bereziak nahiko babes garrantzi-



Fensuagroko kide batek ekoiztutako kafe agroekologikoaren entrega egiten du Bake Akordioaren urteurrenean. FENSUAGRO

tsua eman digu baina, ostera, Gobernuak batere ez.

Fensuagrok eta Mundubat fundazioak ibilbide garrantzitsua egin duzue elkarrekin: azpimarratzekoak dira emakumeen parte-hartzea sendotzeko ahalgina, nekazarien unibertsitatearen aldeko apustua eta Kolonbian nekazariok subjektu politiko kolektibo gisa onartuak izan zaitezten egiten ari zareten lana. 2019ko abenduan NBERen Batzar Nagusiak landa biztanleriaren oinarritzko eskubideak babesteko tresna berria onartu zuen baina, Kolon-

«Fensuagrok jasotzen dituen mehatxu mezuak ez dira soilik mugimenduaren aurkako ohartarazpenak, baizik eta gure lurraldeak estigmatizatze modu bat»

bia, bozketa horretan, abstentut egin zen. Zer dela-eta Estatuaren jarrera hori?

Gai hau aspalditik dator eta estrategia global batean datza. Iraultza berdea hasi zenetik, nekazariak desagerraraztea izan da helburua. Hirien hazkundera handia izan zen urte horietan, mundu osoan, eta gero eta biztanle gutxiago gelditzen joan ziren landa eremuan. Kolonbian prozesu hori askoz oldarkorragoa izan zen, beste herrialde batzuetan ez zegoelako gerrillarik eta hemen bai. 70eko eta 90eko hamarkaden bitartean, Kolonbian nekazariok bizi izan ge-

nuen lumatzea, Estatuak enpresaburu eta lur jabeekin adostutakoa, gerra zikin izugarri baten erdian gauzatu zen. Nekazariok hil, sarraskitu eta gure lurraldeetatik atera gintuzten.

Kolonbia da munduan barne desplazatu gehien dituen herrialdeetako bat, 6 milioi inguru, eta horietatik %95 nekazariak dira. Indarrez kendutako lur horiek guztiak, gero, transnazioalen kontrolpean geratu ziren. 1996an, Via Campesinak elikadura subiranotasuna eta elikadura giza eskubide gisa proposatu zituen sasoian, Munduko Merkataritza Erakundea (MME) sortu zen, eta horren barnean sartu nahi izan zuten nekazaritzaren arloa.

Gu erakunde horren aurka borrokatu ginen, esanez nekazaritza ezin dela salgai ipini. Orduktik, oztopo gisa hartzen gaituzte. Gobernuak ez du nahi gure proposamenekin jarrai dezagun, haien interesen aurka doazelako. AEBak betidanik nekazarien eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenaren aurka egon direnez, Kolonbiako Gobernuak bat egin du posizio horrekin.

Testuinguru latz honetan, geure burua subjektu politiko gisa garatzeko egindako ibilbide luze horren balantzea egitean, Mundubat fundazioarekin dugun aliantza aipatu beharra dugu. Giza eskubideen urraketan aurrean laguntza politiko eta babes garrantzitsua eman digute. Bilbotik Kolonbiako Gobernuak baino askoz gehiago lagundu eta entzun digute. Harreman hori guretzat oso garrantzitsua da, Mundubat aliatu bat baita, gure borrokekin eta bultzatzen dugun eraldaketarekin bat datorrena.

Zuen borroka oinarri politiko argi batzuen gainean eraiki duzue: elikadura burujabetzaren

aldeko apustua, Nekazaritzako Landa Erreformaren proposamena, eta feminismo baserritar eta herrikoia. Azalduko al zeniguke nola garatzen dituzuen oinarri horiek zuen egunerokotasunean?

Nekazaritza eredu bi daude: alde batetik, agronegozioaren eredua, jendearen eta ekosistemaren osasuna axola ez zaiona; bestetik, nekazaritzaren eredua, bizitzaren aldeko eredua, non erdigunean lurra eta gizakiak dauden. Guri asko irakatsi digu Via Campesinaren parte izateak, berarekin batera sakondu baitugu elikadurarako eskubideari eta burujabetzari buruzko eztabaidetan. Horrexegatik, gaur egun proposatzen ari garen nekazaritza erreforma integrala eta herrikoia elikadura burujabetzan oinarritzen da.

Horretaz hitz egitean, nahitaez planteatu behar ditugu hainbat galdera. Non ekoitziko dugu? Galdera horri erantzutean, konturatzen gara, ezinbestean, nekazaritzako erreforma bat egon behar dela; ondasun komunak behar ditugula eta gure jatorrizko haziekin ekoizteko eskubidea izan behar dugula. Nola ekoiztuko dugu? Hor planteatzen dugu ekoizpen matrizea aldatzea, eta matrize berri hori agroekologia da. Sekulako erasoak izan dira, urteetan zehar, agroekologiaren aurka: ez dela autosostengagarria planteatu izan ohi da, ez dela hornitzeko bezain produktiboa. Baina frogatu da hori ez dela egia. Agroekologia da alternatiba al daketa klimatikoaren aurrean eta une honetan bizi ditugun elikadura eta osasun krisien aurrean.

Aurreko guztiari, gure testuinguruan, Kolonbian, giza eskubideen gaia gaineratu behar diogu. Antolaketaren gaia ere hor dago, baita gazteen parte-hartzearen beharra ere. Gure

«Bi eredu daude: agronegozioaren eredua, jendearen eta ekosistemaren osasuna axola ez zaiona; eta bestetik, nekazaritzaren eredua, bizitzaren aldeko eredua, non erdigunean lurra eta gizakiak dauden»

«Feminismo baserritar eta herrikoia oinarritik eraikitzen ari gara, ekimenekin, proposamenekin... emakumeen emantzipazioa lortzeko sistema aldatu behar dugu, sistema berri bat eraiki»



gazteak landan gera daitezen alternatibak behar ditugu eta, horregatik, guk beti esan dugu lurraldea lurraldetik defendatzen dugula; horregatik hiltzen gaituzte, geure lurretan gertatzen garelako.

IALA Maria Cano, Latinoamerikako Nekazaritzako Institutu Agroekologikoan, landan gertuko diren gazteak prestatzen ditugu, landan maiteminduko direnak, profesionalak izan daitezkeenak. Gure lurraldeetatik pedagogia desberdin bat proposatzen dugu, hezkuntza iraultza bat, landaren eta hiriarren arteko arrakala gainditzen ere lagunduko duena. Azken finean, nahi duguna da herrialdeko nekazaritza mugimendua indartzea eta protagonista politikoak izatea, beste nekazaritza-

eta herri sektore batzuekin batera lan egiteko.

**Azkenik, zertan datza Fensua-grotik egiten duzuen feminismo baserritar eta herrikoia-
ren defentsa?**

Feminismo baserritar eta herrikoia oinarritik eraikitzen ari gara, ekimenekin, proposamenekin, pentsatuz emakumeen emantzipazioa lortzeko sistema aldatu behar dugula, sistema berri bat eraiki. Aspalditik gertatzen emakumeen eskolekin, baina laster konturatu ginen eraldaketa kontzientean gizonen ere parte hartu behar dutela: orain gizonen ere eskoletan eta gure eztabaida politikoetan parte hartzen dute eta ikasi dute gure proposamenak ez direla soilik emakumeen gaiak, baizik

eta gizarte osorako benetako al daketa alternatibak.

Orain abuzturako kongresu berri bat prestatzen ari gara eta pentsatzen ari gara nola lurreratu feminismo baserritar eta herrikoia-
ren proposamen politikoa gure egituran. Estatuetan argi eta garbi adierazirik behar du izan gure izaera sindikala, antikapitalista eta antipatriarkala. Gure egitura organikoan bultzatzen ari garen eraldaketa horien esparruan, lehengo “Landa Eremuko Emakumearen Idazkaritza” ordez, “Emakume Nekazaria-
ren Idazkaritza” proposatzen ari gara, eta horrek argi eta garbi islatzen du gure feminismoak nekazari borrokarekin bat egiten duela eta bereizezina direla.



Nury Martinez, hitzaldi batean. SEMINARIO VOZ

AURKITU ALA HIL

Mexiko 100.000 desagertuen langa gainditzeko zorian dago

 **JENDARTEA** / Beñat Zaldua

Lerro hauek idazten hastean, Mexikon 99.831 pertsona daude desagertuta ofizialki, benetako zifra ezagutzea ezinezkoa baita. Egunean 20 eta 30 pertsona artean desagertzen dira herrialdean. Testu hau irakurlearengana iristen denerako, beraz, 100.000 desagertuen langa aise gaindituta egonen da dagoeneko.

Drama erraldoi hau Mexiko Hiriko kaleetan gorpuztu zen joan den maiatzaren 10ean, Amaren Egunean. Badira urte batzuk desagertuen senideek –amak, gehiengo nabarmenean– egunari esanahia aldatu nahi izan diotela, ospatzeko ezer ez dutela gogorazteko, eta Mexikon oihartzun gutxi daukan gai hau mahai gainean jartzen saiatzeko. Drama eta biktimizazio geruzak pilatzen doan tragedia da desagertuen: galerari ezjakintasuna gehitzen zaio, gizartearen eta gobernuaren indiferentziarekin batera. «Zerbait ginen zuen...».

Hermelinda Ruiz tamauliparrak 12 urte daramatza bere seme Roberto Cordoba Ruiz bilatzen. «Ez zaiola gertatuko uste du jendeak; gure seme-alabak gauza txarretan sartuta zeudela uste du, bilatu egin zutela gertatu zitzaiena. Agintarien aldetik, berdin: zertan zebilen zure semea? Ez dute ezer egiten. Nire kasuan, bi aldiz galdu dute espediente, eta nire kopiarekin ireki ahal izan dut berri. Fiskaltzara joaten naizenean, ez dut galdetzen ikerketa nola doan; nik ematen diet nire ikerketaren berri, behintzat espedientearen sar dezaten», dio, haserre.

«Hori gara haientzat, zifra bat espediente batean. Horre-

Urtero bezala, euren auzia mahai gainean jartzen saiatzeko baliatu zuten Amaren Eguna desagertuen senideek. Gizarteak indiferentziarekin ikusten du oraindik gaia, baina tamalez, gero eta gehiago dira mobilizazioetara iristen direnak. Desagertuak gero eta gehiago direlako, jakina. Latza da haien ahotsa entzutea, baina itxaropen mugagabe baten isla ere badira.

gatik gustatzen zait esatea desagertuak 100.000 gehi bat direla; nire kasuan, 100.000 gehi Roberto. Nire semea ez delako zerbaki bat», azaldu du Ruizek, eta gizarteari enpatia eskatzen dio: «Jendeak ulertu egin behar du edonori gertatu ahal zaiola, ez direla kasu isolatuak, estatu krimenak direla».

NBEREN TXOSTEN GORDINA

Erantzukizunaren inguruan txosten gordina argitaratu zuen duela hilabete bat Nazio Batuen Desagerpen Behartuen kontrako Batzordeak. Mexikon, desagertzeak «krimen perfektuaren paradigma» direla adierazi zuen. Izan ere, 100.000 desagertu eta gorpuztegi eta hobi komunetan identifikatu gabeko 52.000 gorputuen herrialde honetan, 36 sententzia judizial baino ez daude gaiaren inguruan.

Bere txostenean, desagerpen kasu batzuk zuzenean funtzionario publikoek eragiten dituztela dio batzordeak, baina gainera, egilea zein izan den inporta gabe, ikertzeko ardura beti Estatuari dagokiola azpimarratzen du.

Bere eginbeharra da kasuak argitzea, baina jarrera ez dator bat, gehienetan. Laura Curielek zazpi urte daramatza bere alaba Daniela Mabel Sanchez Curiel bilatzen. 24 egun pasatu behar izan ziren poliziak eta fiskaltza diligentziak egiten hasteko. «Oso gaztea da, itzuliko da, egun batzuk eman ie-zazkiozu», esaten zioten. «Ez zuten ezer egin», dio, nahiz eta Danielaren kasuan susmagarri garbi bat egon: «Nire alabak bortizkeria sufritzen zuen etxean, bere semearen aitarekin gogor eztabaidatu ondoren desagertu zen, baina ikerketan sekula ez da genero perspektibarik egon».



Hermelinda Ruizek bezala, Laura Curielek pena handiarekin ikusten du gizartearen indiferentzia: «Soilik gertatzen zaienean konturatzen dira dagoen arazoaz». Ruizek ez bezala, ordea, zer edo zer espero du oraindik Andres Manuel Lopez Obradoren gobernutik: «Buelta eman dezatela eta ikus gaitzatela behingoz, entzun dezatela esateko daukaguna».

Kanpainan zehar Lopez Obradorrek erreferentzia ugari egin zizkien desagertuei, eta egia da Desagerpen Behartuen kontrako Batzordea bere gobernuari esker iritsi zela Mexikora, aurreko gobernuak ez ziolako eskatutako baimena onartu. Bisitaren ostean argitaratutako txostena, ordea, ez zitzaion gustatu presidenteari, eta Batzordea kritikatu zuen. Senideen arabera, gainera, kontraesankorra da zentzu askotan, adibidez armadaren paperekin. Militarrek kaletik aterako zituela esan zuen, baina inoiz baino presentzia handiagoa daukate Mexikoko bizitza publikoko alor guztietan. Militarizazioa da, hain zuzen, Nazio Batuetako batzordearen txostenak gogor kritikatu zuen puntuetako bat.

ELKARTZEAREN GARRANTZIA

Akatsak onartu eta ekintzara pasatu dadila eskatzen dio Gobernuari Curielek. Bitartean, maiatzaren 10 guztietan kalea ateratzen jarraituko dutela dio, egun garrantzitsua baita senideentzat. «Zazpi urte hauetan ez dut lortu ez justiziarik ez egiarik, baina beste ama askorekin elkartu naiz, borrokan jarraitu ahal izateko», azaldu du. Helburuari buruz, zalantza gutxi: «Gaur hemen gauden senide guztiak berriz hemen egon behar ez izatea, amaitu dadila bilaketa,



Maiatzaren 10ean Mexikoko Reforma etorbidean desagertuen senideek egin zuten mobilizazioaren irudiak. Alfredo ESTRELLA | AFP

aurkitzen lagundu diezagutela, gure seme eta alabei negar egiteko eta hitz egiteko leku bat izan dezagun behingoz».

Metro batzuk aurrerago, Reina Renovak malko artean berretsi du elkartzearen garrantzia. Estatu Batuetan bizi ziren, eta Chihuahuako herri batera bisita egin zuten egun batean desagertu zitzaizen Alexis semea, duela zortzi urte. «Gertatzen zaiguna oso tristea da, ama asko garelako horrela gaudenak, baina horrek jarraitzeko indarra ematen digu. Ni-

retzat oso garrantzitsua izan zen bakarrik ez nagoela ikustea». Beste bi seme-alabek AEBetan jarraitzen duten arren, Renova Mexikon bizi da ordutik. «Nire semea egunero bilatzen dut, ezin naiz bizi bestela», azaldu du.

Desagerpenen kasuistikak hamaika dira: narkoa da erantzulea kasu askotan, baina beste asko daude: bortizkeria matxistarekin lotutakoak, duela 40-50 urteko gerra zikinarekin zerikusia dutenak, kazetariak, Erdialdeko Amerikako mi-

granteak eta abar. Kasu guztiek konpartitzen dute, ordea, inpunitatearen itzala, eta senide guztiek daukate puntu komun batzuk: iraunkortasuna eta bila jarraitzeko determinazioa, euren bizitza arriskuan jartzeraino. Ez da mehatxu abstraktu bat, gertatu izan delako. Gutxienez bost senide bilatzaile hil dituzte azken urteetan, Estatuak egiten ez duen lana egiten zuten bitartean.

«Ez dago negarrik gabeko egunik, ez oinazerik gabekorik, ezta bilaketarik gabekorik ere», dio Reina Renovak. «Ez dago atsedenik; astelehena, igandea edo jaieguna, igual dio, alaba falta zaizunean, egun guztiak dira berdinak», azaldu du Laura Curielek. «Beti esaten diot berdina bilobari, bilatzeari uzteko bi arrazoi baino ez daude: edo topatu dudalako, edo hil egin naizelako», esan du Hermelinda Ruizek amaitzeko.

«Fiskaltzari ez diot galdetzen ikerketa nola doan, ez dutelako ezer egiten; nik ematen diet nire ikerketaren berri, behintzat espedientean sar dezaten», azaldu du Hermelinda Ruizek

«‘Oso gaztea da, itzuliko da, egun batzuk eman iezazkiozu’, esaten zidaten hasieran. 24 egun pasatu behar izan ziren lehenengo diligentzia egin ahal izateko», dio Laura Curielek



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Voltaire gure laguna

Ezekiel (izen asmatua) 51 urteko gizonezko bat da, bakarrik bizi dena, eta egoera penagarrian etorri zen gure kontsultara: makurtu ezinik eta pijaman, bakarrik janzteko gai ez zelako. Horrelako kasuetan, lehenengo helburua pazientea bere egoera larritik ateratzea izaten da: eguneroko bizimodua egiteko moduan ipintzeko, behintzat. Baina egunak joan, egunak etorri, teknika batzuk zein besteak erabili, goizero etortzen zenean eta «zer moduz gaur?» galdetzean, Ezekielek ez zuen aurrerapenik: ezin zituen galtzerdiak jantzi ere! Kasu hauek ohikoak dira gure lanean. Haiei aurre egiteko, ezinbestekoa da patologia ezberdinen eboluzioa ezagutzea, espero daitekeena aurreikusteko. Eta batzuetan, gure jakituria handia poltsikoan gorde beharko dugu, ezingo dugulako besterik egin pazientea lasaitzea baino.

Hori azaltzeko, plano orokorragora pasatu behar dugu. Denborarekin, bizkarreko egiturak higatuz doaz. Hori ez da txarra; pertsona guzti-guztietan gertatzen den zahartze prozesu normala baino. Buruko ilea zuritzea-gatik arazo kapilarra dugula esaten ez dugun bezala, bizkarreko artikulazioak edo diskoak higatzen zaizkigunean ere ez dugu pentsatu behar arazo traumatologikoa dugunik. Halere, batzuetan egituraren zati bat desorekatzen da eta minak etortzen zaizkigu: bizkarraren kasuan, artikulazioa, lotailuak, muskulua... izaten dira arruntenak. Baina gure gorputzak sendatze ahalmen handia du. Kasu askotan, hondatuta dauden egiturak birsortuko ditu; eta hori ezinezkoa denean, traba ez egiteko moduan ipini ditzake. Praktikan, horrek esan nahi du eguneroko bizitzako min arrunt gehienak gorputzak berak bakarrik konpontzen dituela: etendako mus-

kuluak, hondatutako tendoiak, herniatutako diskoak, hautsitako hezur-rak... epe jakin batean berez sendatzen dira, osagileon inolako interbentziorik gabe.

Noski: eboluzio natural hori gauzatzeko, denbora bat behar da. Pazientearen minez dagoenean, egoera zaila. Puntu horretan etortzen zaizkigu pazienteak, eta kasu horretan lehena eta ezinbestekoa pazientearen balorazio eta diagnostiko ahal denik eta zorrotzena egitea da, historia klinikoa jasoz (hitz eginez) eta esplorazio fisikoarekin. Askotan zortea dugu, eta tratamenduekin mina baretzea lortzen dugu; baina kasu gutxi batzuetan, ez da horrela gertatzen. Horrelakoetan Voltairek esandako hura gogoratzea baino ez zaigu gelditzen: «Medikuntzaren artea pazientearen entretenitzea da, Naturak sendatze lana egiten duen bitartean». Eta horixe gertatu zen Ezekielen kasuan ere: aste eta erdi minez egon ostean, halako batean, hobetzen hasi zen. Hobetzen, hobetzen, hobetzen... mina guztiz desagertu eta bere lanpostura inolako arazorik gabe bueltatu ahal izan zen arte. Eta ziurtatu die-

zazuket, onerako eboluzio hori ez zela geuk eginiko fisioterapia tratamenduarengatik izan; Ezekiel berez sendatu zen.

«Oi, osagile harroputzak! Non gertatzen da orduan zuen jakituria, eta profesionaltasuna, eta unibertsitatearen kontura ematen duzuen matraka hori?», esango du norbaitek. Izan ere, horretarako edozein petrikilok balio du; eta agian hori ere ez, pazientearen berez sendatuko bada. Bueno, bai eta ez. Umiltasuna beti dator ondo: ahalguztidunak ez garela onartzea, eta batzuetan nahi baino gutxiago egin dezakegula. Baina, interbenitu ezin dezakegun kasuetan ere, gauza handia da sendatze prozesua gainbegiratzeko (dena behar bezala doala, eta konplikaziorik ez dagoela ziurtatuz) eta, batez ere, pazienteari gertatzen ari dena ulertaraztea, tamainan kezkatu dadin (ez gutxiegi, eta ez gehiegi). Voltairek zioen «entrenimendu» hori ez delako neutroa: eta pazienteari egoera ulertzeko eta laguntzeko ga-koak ematen zaizkionean, gorputzaren sendatze prozesua hobea eta osoagoa izaten da. •

www.abante.eus



Eguneroko bizitzako min arrunt gehienak gorputzak berak bakarrik konpontzen ditu.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Bortxaketa automatizatuak eta eskubide atzeratuak

Europako Auzitegiak berretsi berri du; Xabier Atristain euskal preso (preso ohia) bi-degabeki zigortu zuen Espainiako Erresuma ahalguztidunak. Inork jaramonik egiten ez zion auzi judizialak garrantzia hartu du bat-batean, urtarrileko lehen ebazpenarekin, eta larritasuna gero, oraingo baieztapenarekin. Bi argudio harrigarri irakurri ditut prentsan, inkomunikazioaren helburuak biluzten dituen erabakiarekin asaldatuta daudenentzat lasaigarri-edo izan nahi dutenak: «ETako presoak ez dira tropelean kalera aterako, banan-banan baizik» eta «erabakia ez da automatikoki aplikatuko». Zuzenbide Estatua beste behin ere Saihezbide Estatu, tranpa bat hurrengoarekin kateatuz.

Zertaz ari garen oroitarazi beharko dugu: 2010eko martxoan, Polizia atzetik zuela jakin ostean Biarritze-ko komisaria batean aurkeztu zuen bere burua Atristainek, hortik Madrilgo Auzitegi Nazionalera eramane zuten eta bertan bere kontrako frogarik ez zela egiaztatu eta aske utzi zuten. Susmoa oraindik izan bazuten, Estatuko polizia ezberdinei ez zitzaientz tresnarik falta: atzetik segitzea zuten, telefonoa kontrolatzea, ikerketan segitzea... Baina ez, bide zuzenagoa eskura zutelako: indarrez atxilotu eta inkomunikatu. Irailean egin zuten. Ez da gauzarik garrantzitsuenak, baina gogora dezagun ordurako ETaren deseskalada armatua azkartua zela. Guardia Zibilarena ez.

Hamazazpi urteko espetxe zigorra ezarri zioten, inkomunikazioan urratutako deklarazioa «froga» bakarra izan arren. Hamazazpi, erraz esaten da. Horietatik hamaika pasatxo beteak zituen Atristainek aske uztea agindu denerako; preso politikoa ez balitz, zigor horrekin aspaldi kalean zatekeen.

Europako epaia irmo dela, Gorenak itxi beharko du orain bere aurkako prozesua. Baina espainiar bitxikeriek ere ezaugarritzen dute fase hau: Gorenak kondena

berraztertu dezan, Gorenari berari eskatu behar zaio baimena. Hori bai gauza automatikoa dirudiela, ezta? tramite huts bat. Baina bertan dugu Arnaldo Otegi eta gainerakoei gertaturikoa: berriro epaitzeko gogo agertu du Gorenak, eta orain Konstituzionalaren mahai gainean da afera, zigorrak agortuak izan ostean.

Demagun Atristainena bide zentzudunagotik doala. Zer egin beharko luke gero benetako Zuzenbide Estatu batek? Hasteko, preso ohiari dagokionez, Europak agindutako 20.000 euro horiek txantxa dirudite eragindako kaltearen alboan: espetxean pasarazitako egun bakoitzeko ez da bost eurora iristen. Erreparazioa kontzeptua zabalagoa da eta ez da diruz neurtzen. Beste hiru ondorio gutxienez askatu beharko lituzke epaiak: erantzukizunak garbitu (nork egin zuen hura),

Sei urteko zigor erantsia jaso zuten ilegalki «Parot doktrina» jasan zuten batzuek, zenbat egingo dute «Atristain doktrina» jasan dutenek? Berak hamaika egin ditu...

antzeko kasuak zerrendatu eta defentsa juridikorik gabeko inkomunikazioaren prozedura hori ezabatu.

Inozokeriatan ari naiz, jakina. Lehena ez da gertatuko, bigarrena ere ez, eta hirugarrena ETaren amaieraren ondorio izango da, izatekotan. Izan ere, eskubideak bortxatzea gauza automatikoa izan da, bada eta izango da Estatu espainolean, independentisten aurkako borrokan. Eta inertzia horren ondorioz, ez dakit gainerakook ez ote dugun automatismo hori ere barneratu; hasiera-hasieratik eskubiderik ez dagokigula, alegia.

Sei urteko zigor erantsia jaso zuten ilegalki «Parot doktrina» jasan zutenetako batzuek. Zenbat egingo dute «Atristain doktrina» jasan dutenek? Nola eragin giza eskubideak guztiontzat eta automatikoki betearazteko, banan-banan eta urtez urte itxaron beharrik gabe? •

GARUNA ETA PORTAERAK

Emozioetan eta harremanetan trebatu behar zen makina konplexuaren gakoak

 **ZIENTZIA** / Nerea Goti

Giza portaeren eboluzioa hizpide izan dute Bilbon, berriki izan diren Eboluzio eta Neurozientzien Jardunaldietan, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Bizkaiko Osasun Mentalaren Sareak antolatuta. Gizakiaren jokabideak izan dira solasaldien protagonista nagusiak, baina horiekin zerikusia duten garunaren atal fisikoetan geldialdi ezberdinak izan dituen bidaia liluragarri bat oparitu dute hainbat arlotako adituek: emozioak, sexu atrakzioa, gorputz kognizioa, psikopaten portaeren arrazoiak... Handi egin zen garun horren instrukzioak non, nola eta zergatik aktibatzen diren azaldu dute ikuspegi ezberdinetatik biologoek, psikobiologoek, neuropsikologoek, psikiatreek, baita ingeniariak ere, burmuinak fabrikatzen dituen jokabideak eta horien historia ebolutiboak ulertarazteko.

Funtsean, esan daiteke garunaren funtzionamenduan daudela portaerekin lotutako erantzun gehienak, eboluzioarekin gizakiaren garuna espezializatzen joan dela, oso izaki emozionalak eta sozialak garela; baina oraindik erantzun zehatzik ez duten galdera asko dago airean, eta horientzako, ikerketen emaitzen arabera formulatzen dauden hipotesiak daude. Edozein kasutan, nabarmendu zutenez, ikuspegi eboluzionista «funtsezkoa da garunaren, adimenaren eta jokabidearen ulermen sakon bat lortzeko».

Giza garunaren mekanismoen puzzle konplexu hori osatu nahian ari dira neurozientziak, eta biologoak, psikiatruk, psikologoak... falta diren pieza horien azterketan murgilduta daude, edo horientzako azalpen zeha-

Giza portaerak eta emozioak garunaren atal zehatzekin lotu daitezke, baina ezer gutxi dakigu mekanismo horien funtzionamenduaz. Plano ebolutiboan, badakigu garuna gizartean bizitzeko espezializatu zela eta dena ez dela hain instintiboa, desioari deitu egin behar zaiola. Neurozientziei buruzko jardunaldietan landu zuten gaia.

tzak bilatzen, behintzat. Konplexutasun handiko gaia da, eta ezinezkoa izango litzateke orrialde hauetan aipatutako ikerketa, hipotesi eta eredu guztiak erreproduzitzea, baina saia gaitezen jardunaldi horien geltoki batzuetan adituei entzundako zenbait hausnarketatara hurbiltzen. Behin baino gehia-

gotan emozioen mundura iritsiko gara, baita buruko eritasunetara ere.

Garun hiperkonplexua da gizakiarena, batez ere emozio eta besteekiko interkonexio horietan trebatu dena, eta horrek gero eta irakurketa biologiko zehatzago bat dauka. Automatikoki egiten duen horretaz jabetzen

Eboluzioa eta neurozientziak hizpide izan dituzte Bilbon izandako jardunaldietan eta, hainbat adituren eskutik, burmuinaren bilakaeraren eta portaeren arteko loturen inguruan dauden ziurtasunak eta misterioak argitzen saiatu dira.
GETTY IMAGES

ez bagara ere, estimulu eta erantzunen atzean milaka datu maneiatzen dituen mekanismo oso bat dago, eta horietako asko garunaren atal zehatzetan produzitzen dira.

Garun azalaren eremu ezberdinen funtzionamendura hurbildu zen Manuel Martin Loeches Biopsikologian katedraduna. Nabarmendu zutenez, arlo soziala da giza garunak izan duen eboluzioaren eragile nagusietako bat. Gogorarazi zuen garun azalaren eremu horietako batzuek kanpoko espazioa ulertzen, ekintza konplexuak egiten... jarduten dutela, baina garunaren aurreko eremuak direla bereziki arrazoitzen espezializatuta daudenak.

Ez gara espezie sozial bakarra (gizakiaren ahaide hurbilak diren primateak hor daude), baina



Garunaren haziera gizartean bizitzeko behar diren gaitasunen garapenarekin lotuta dago, dimentsio sozialarekin, Manuel Martin psikobiologoak azaldu zuenez

gizakien kasuan, nabarmenagoa da arlo hori. Tamainari erreparatuta, garun handi bat daukagu, eta eboluzioaren ikuspuntutik planteatzen den galderetako bat da zergatik egin den hain handi: «Arrazoitzeko? Teknologia garatzeko?».

Bistan da konplexutasun horren barruan gauza bitxiak gertatzen direla, baita paradoxikoak izan daitezkeen ekintzak ere. Horren adibide gisa, detaile bat aipatu zuen eboluzioa eta giza portaerak aztertzen dituen adituak. Esan zuenez, berrikuntza teknologiko oso konplexuak diseinatzeko gai garen bitartean garatutako hegazkin hipersofistikatu horietan askotan ez da eserlekuen 13. ilara agertzen, edo ez gara konturatzen 14. ilara gisa agertzen den hori finean 13. ilara dela. «Hain burmuin azal handia duen espezieak, hain ondo arrazoitzen duenak, XXI. mendean 13. ilara alde batera uzten jarraitzen du», mahaigaineratu zuen.

21 URTE HELDUTASUNERA IRISTEKO

Garunaren haziera hori bulztatu duena, zehaztu zuenez, ez da izan asmakizun teknologiko horiek sortzearen beharra, baizik eta «garun soziala» deitzen dena, edo beste era batera planteatuta: «gizartean bizitzeko gaitasuna» ematen duen mekanismoa, «batere erraza ez den arlo bat», gaineratu zuen ikertzaileak.

Hausnarketarekin lotuta, datu pare bat utzi zuen: gizartean bizi ahal izateko 21 urte behar ditu giza garunak heldutasunera iristeko. Heldutasun horretara heltzeko prozesuaren azken urratsak autorregulazio sozialarekin zerikusia duten eremuetan izaten dira.

Egiaztatu da, bestalde, garunaren konplexutasuna kon-

Lortutako trebetasun horien inguruko bitxikeria bat: «Ohartzen ez bagara ere, besteen emozio adierazpenek gudan emozio bera eta intentsitate berean eragiten dute»



Laura Moran psikologo, sexologo eta dibulgatzailea. Monika DEL VALLE | FOKU

plexutasun sozialaren hazkundearen neurrikoa izaten dela. «Neokortexaren tamaina handiagoa da taldea zenbat eta konplexuagoa izan», esan zuen. Beste era batera azaldu ta, «badirudi garun azala hazi egin dela, hein handi batean, talde sozial konplexuen eskaerei erantzun ahal izateko».

Zer dago eboluzio biologiko horren atzean? Azalpen argi bat eman zuen: «100-150 kideko taldea bagara eta bakoitzaren izena, nola pentsatzen duen, zer intentzio izan ditzakeen, bere iragana zein den... jakin behar badugu, ondo da torkigu garun handi bat izatea, zeren hori guztia jakiteko gai ez banaiz seme-alaba gutxiago izango ditut, baliabideak eskuratzeko aukera gutxiago...». Azpimarratu zuenez, eredu berriagoek hipotesia baieztatzen dute: giza garuna hain handia izatea ez da hegazkinak egiteko edo jendea Martera bidaltzeko beharragatik, gizartean bizitzeko trebea izateko beharragatik baizik.

GIZAKIEN PATROI BITXIA

Garun soziala deritzon horre-


tan, gainera, bada gizakietan soilik azaltzen den patroi bitxi bat: «sare lehenetsia» (gaztelaniaz, *red por defecto*) delakoa. Adituaren azalpenen arabera, «ezer egiten ez dugunean martxan jartzen diren garunaren zatiak dira; gizabanakoa bere gauzetan dago, aurre hartze edo iragarpen diren horietan, bizipenetan, birbizipenetan».

Kontatu zuen sare hori erresonantzia funtzionalen esperimentuetan deskubritu zutela. Ikertzaileei deigarri egin zitzaaien gizabanakoari «ez egin ezer» esaten ziotenean, adimenak gune batzuk aktibatzen zituela sistematikoki. Sare hori garun sozialaren barruan dago, eta hausnartzeko dispositiboekin lotuta.

«Akats handiak baditu ere, gure garuna nahiko ondo eginda dago, beste pertsona horrek zer intentzio duen, zer egingo duen, zelan erreakzionatuko duen, zer nahi duen edo zer emozio sentitzen duen jakiteko» balio du. «Erraza ematen du, garuna horretarako egina daukagulako, baina oso konputazio konplexuak dira», azpimarratu zuen iker-tzaileak.

Especializazio horrekin lotuta, garunak zeri erreparatzen dion eta hortik zer informazio lortzen duen azaldu zuen biopsikologoak, eta bi elementu nabarmendu zituen: begiko niniak eta esklerotika, ninia-ren inguruko mintz zuria.

Elementu horiek informazio handia duten eta garuna aktibatzen duten seinale ugari igortzen dituztela azaldu zuen. Begi niniak espezie berekoen artean baino ez dute funtzionatzen, zehaztu zuenez; eta esklerotikaren kasuan, haren bidez pertsona batek nora begiratzen duen jakin dezakegu, baina intentzioak eta emo-



Manuel Martin Loeches Psikobiologiako katedraduna da. Monika DEL VALLE | FOKU

zioak ere adierazten dituela erantsi zuen. Beraz, garun sozialak mekanismo ezberdinei esker egiten duenetik asko besteen adimenak argitzea dela adierazi zuen Martinek. Zehaztu zuenez, neurri handi batean giza garunean arlo soziala eta emozionala gainjarrri egiten dira, eta batez ere horrek handitu du garunaren tamaina, soziala eta emozionala den guztiak.

SEXU DESIRA, EZ HAIN INSTINTIBOA

Gure garunak ekoizten edo besteen seinaleen aurrean eragiten dituen emozioen joko zelaian sartuta, zer gertatzen da desio eta erakarpen sexualarekin? Erantzuna Laura Moran sexologoak eman zuen, sexu harremanek behar duten elikaduraren inguruko gomendioz jositako hitzaldi batean. Azaldu zuen kontsultan oso ohikoak direla sexu desiraren inguruko kezkak; «ez dut gogorik izaten, ez dut behar» bezalako adierazpenetan islatu ohi dira. «Sexuarekin obsesionatuta dago, denbora osoan nahi du» eta «ez dakit zer gertatzen zaion, ez dut erakartzen» bezalako esaldiak ere nahiko ohikoak omen dira, arazoa formulatzen duen aldearen arabera, erantsi zuenez.

Desioaz hitz egitean askotan errepikatzen den beste esaldi bat jarri zuen mahai gainean: «ez zait pizten». «Uste dugu giza sexualitatearen inguruko guztia, desira barne, oso instintiboa dela, oso automatikoa, oso espontaneoa, ez dela gauza handirik egin behar, hori hor dagoela eta zuk desioa sentitzen duzula», esan zuen Moranek. Ez da egia, ordea, edo ez guztiz, argitu zuenez.

Iraganera egin zuen jauzi duela 1.200 milioi urte ugalketa

sexuala jaio zen unera arte joateko, ordura arte asexuala baitzen.

Ugalketa sexuala «arrakasta ebolutibo» bat izan zela nabarmendu zuen, ordutik aurrera informazio truke bat behar zela gizabanako ezberdinen arteko ugalketa hori gauzatze-ko, eta ezberdinen arteko komunikazio horretan, gauza bera ez diren «desioa» eta «erakarpena» nahasten bukatu dugula ohartarazi zuen.

Desioa eta erakarpena ezberdintzeko zenbait gako eskaini zuen psikologoak. Atrakzioa faktore automatiko bat da, instintiboa, hor dagoen zerbait da. Azalean pairatu dute homofobiaren aurrean sexu orientazioa aldatzen saiatu diren pertsonak, aipatu zuenez. «Atrakzioa daukazun zerbait da, ez da alda daitekeen zerbait». Desioa, aldiz, «ondo pasatzeko gogo da, sexu plazera izateko gogo da», eta agertzen denean gerta daiteke norbaitekin egiteko gogo izatea, baina ezinezkoa bada beste bide batzuk daude, besteak beste, masturbazioa bera, zehaztu zuenez. «Orduan, desioa alda dezakedan zerbait da».


Moranen esanetan, sexologoaren aurrean esertzen diren pertsona askok sexu desiraren ideia instintibo hori izaten dute, gogoak instintu baten modura funtzionatzen duela pen-

tsatzen dute; eta desioa sentitzen ez duen horrek «serieko arazo bat» daukala uste izaten du, sexualitatea naturala den zerbait dela pentsatzen duela.

Sexu desira, oinarri biologiko, ebolutibo eta endokrinotik oinarritu arren, nerbio sistemako beste faktore batzuek baldintzatzen dutela argitu zuen.

Laura Moranek azaldu zuen desiraren eta erakarpenaren historia ugalketa sexualarekin hasi zela, ezberdinen arteko komunikazioa agertu eta garatzen hasi zenean

Ohartarazi zuen desira eta erakarpena nahastu egiten ditugula baina ez direla gauza bera. Bata aldatu edo moldatu daiteke beste bide batzuk bilatuz, baina bestea ez




Moranek desioaren izaera askotarikoa dela azpimarratu zuen. Desira mota asko daude, baina biren arteko bereizketan jarri zuen begirada: sexu desio espontaneoa eta erantzuneko sexu desioa. Lehenengoa ageriko arrazoirik gabe sortzen da; gogo sortzen da, eta horretan gorabehera hormonalek izaten duten parte-hartzea aipatu zuen, baita enamoramendua eta horrek ekartzen duen «desio espontaneoko etengabeko egoera» ere.

Desira espontaneoa ageriko kausarik gabe agertzen dena da; bigarrenen, aldiz, desira sortzen duen kausa bat dago, musuak, laztanak... edo «harrikoa egitea». Azken gomendio horrek, estereotipo heterosexualekin jarraituz, harridura eragiten duela esan zuen Mo-

ranek, baina garunaren funtzionamendura itzulita, burmuinak egiten duen interpretazioa azaldu zuen. «Gure [emakumeen] burmuinak interpretatzen du gizarteak guri gehien egozten dizkigun zereginetan laguntzen ari zaretela [gizonezkoak], uste dugu gure pentsatzen ari zaretela, gure zaintzan, guretzako denbora gehiago izan dezagun, eta horrek guztiak testuingurua errazten du sexu desioa ager dadin», argitu zuen.

DESIOA AKTIBATZEA DA GAKOA

Irakasle eta dibulgatzaileak azpimarratu zuenez, desioa hor dago beti, aktibatzea da gakoa, desioa izateko beste eragozpenik ez badago, behintzat, hau da, errua, beldurra, min fisikoa... edo estresa bera, desioa-



Jose Miguel Martinez
neuropsikologo eta
psikologo sanitarioak
primateen, hizkuntzaren,
hautapen kulturalen eta
nerbio sistemen eboluzioa
aztertzen ditu.
Neurozientzia ebolutiboaz
idazten du bere blogean:
«Der Golem».
Monika DEL VALLE | FOKU

PSIKOPATAK EZ DIRA GURE GIZARTEETATIK DESAGERTUKO

Ingurune sozialetan hain espezializazio handia lortu duen garunaren historia ebolutiboan, neurozientzia argitzen saiatzen ari den galderetako batzuk dira buruko gaixotasunen atzean zer dagoen, horiek zerk eragiten dituen edo garunaren zein atalekin lotuta dauden. Bilboko jardunaldietan paranoiaz edo haluzinazioez hitz egin zuten psikiatrek, baita psikopatiarekin ere. «Zergatik jarraitzen dute psikopatek existitzen?», planteatu zuten. Erantzuna airean geratu zen, psikopata ospetsuenen azterketatik psikopata integratueta, adituak ez dira ados jarri ezta jokabide horren sailkapen teknikoan ere. «Nahasmendua da, egokitzen bat edo azpiproduktua?», galdetu zuten.

Jose Miguel Martinezek bera neuropsikologoa baino gehiago primatologoa dela azaldu zuen. «Simio handien bizitza sozialean» aditua, hizkuntzaren, hautapen kulturalaren eta nerbio sistemen eboluzioa dira «Der Golem» blogaren egilearen ikerketa eremuak. «Arazoa da portaera ez dela fosilizatzen», komentatu zuen, baina duela 30 milioi urte baino gehiago garunaren bi atalen arteko truke kognitibo eta ebolutibo bat egon zen: amigdalaren eta aurreko zinguluan. Aipatu zuen aldaketak izan zirela komunikatzeko eran, giro sozial eta bestelako giroekiko izan zen irekieran. Gogora ekarri zuen antzinako primateetatik gatzela, lobulu frontalen garapenarekin jokabidea antolatzen hasi ginela eta, gainera, hizkuntza heldu zela; horrek «kulturarekiko animalia hipersentikorak egiten gaitu».

Martinezek nabarmendu zuenez, psikopatiaren jatorria azaltzen saiatzen diren hipotesi ezberdinak daude. Deslotura emozionalean jartzen dute fokua aditu batzuek, enpatia defizitean... Esan daitekeena da, aipatu zuenez, psikopatak gizartean oso ondo moldatzen diren pertsonak direla, eta ezin direla inoiz asko izan, «ez die merezi». Datu bat eman zuen, populazioaren %1 badira 80 milioi psikopata baino ez daude munduan. Sakonean duten patroia besteez baliatzeko erraztasuna da, baita lidergoaz ere. Azaldu zuenez, hiri giroetan eta berdintasunezko gizarteetan oso ondo mugitzen diren profilak dira; ez, ordea, erregimen despotetan. Lotuago daude, bestalde, estatu-gizarte berrien sorrerarekin, «ez du zentzurik ehiztari biltzaileen gizarte batean psikopata integratuak ikustea, ez dago hainbeste jende».

Psikopata jaio edo egiten den galderaren aurrean, Martinezen ustez, konplexua da baina baliteke giroak pisu gehiago izatea arlo biologikoak baino. «Ez da sinetsarazi diguten bezain hereditarioa», esan zuenez, eta erantsi zuen seguruenik «bizi duten giroarekin lotuta dauden estrategien multzo bat» dela. Hurrengo galdera bada psikopatak desagertuko diren, erantzuna ezezko zorrotza dela esan zuen. «Elkarrekin kolaboratzen duten pertsonak dauden gizatalde guztietan haietaz baliatzen saiatuko diren pertsonak egongo dira beti».

ren etsai nagusietako bat, eta emakumeen artean ohikoagoa izaten dena, zehaztu zuenez. Estresa ere eboluziotik datorren zerbait dela argitu zuen. «Estresa alerta egoera bat da eta eboluzioak diseinatu gaitu borrokatzeko edo ihes egiteko prest egon behar izate horretan», azaldu zuen.

«Garrantzitsua da ulertzea plazera desioarekin lotuta dagoela eta desioa ez dela berez datorkigun zerbait», azpimarratu zuen. «Plazera sentitzeko gure burua ezagutu behar dugu, zeren askotan norberaren gorputzarekiko arbuioa dago eta gorputza plazera sentitzeko erreminta da», jarraitu zuen. Adituaren esanetan, garrantzitsua da gure testuinguruan zer gertatzen den ikustea, arazo fisiko, sozial edo

harremanetakoa den zerbait dagoen, «baina desioari tokia egin behar zaio». Beste gomendio bat eman zuen, sexu-ari tokia egitearen ildo horretan, «zeren sarritan aurkitzen dugun gauzetako bat da 'gremliak' oheratu ondoren, gauerdian, elkar aurkitzen saiatzen diren bikoteak daudela, eta baldintza horietan ezinezkoa da sexu olinpiada bat egitea». Azaldu zuenez, sexu-ari toki hori egitea garrantzitsua da, bai bikotean bai norberaren buruarekin, baina espazioa bilatu behar da «bikotekidearekin egoteko eta sexu plazeraz gozatzeko». Nabarmendu zuenez, «desioa agertzeko lan egin behar da, eta neurozientziak ari garela desioa beti presente dagoela gogoratu behar da».



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:



«HAZI HEZI»

Hamar urte familia eta hezitzaileen «tribu moderno» izateko lanean

HEZIKETA / Maider Iantzi Goienetxe

Bi urte gogor iragan ditugu, bereziki zaintzan. Haur eta nerabeek ez dituzte egoera samurrak pasatu. “Hazi Hezi”-ren guraso den Hik Hasi euskal heziketarako egitasmoak 25 urte bete zituen, ezin izan zuten ospatu, eta orain hazierari eta hezierari buruzko aldizkariaren hamar urteak ospatzeko gogoz daude. Bertzetik, jendarteratzeko ahalegina egin nahi dute. Izan ere, guraso eta hezitzaileen artean beharra dagoela ikusten dute. «Orain arte edukian zentratu gara eta zailtasunak izan ditugu eurengana iristeko, baina aurrerantzean ez da berdinez izango», diote.

Joan den astean, hedabideetako eta euskalgintzako lagunak, kolaboratzaileak eta bidelagunak elkartzu zituzten jai txiki batean, Donostiako Aquariumen, eta aldizkari berritua erakutsi zieten. Iganderako, maiatzak 29, besta ireki bat prestatzen ari dira Adunan. Alaia Martin kolaboratzailearen bertsoak, Nerea Mendizabal psikopedagogoaren hitzaldia, eskulanak, eta Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna izanen dira.

PAPERAREN KRISIAN JAIKOK

Kideek diotenez, aunitz dute ospatzeko. Kontuan izan behar da 2012an sortu zirela, paperaren krisia deitu zitzaion txakalaldi hartan. Horrez gainera, euskaraz komunikazioan lan egitea ez da erraza, zer erranik ez haziera eta heziketa jorratzen dituen aldizkari espezializatu batentzat.

Hasiera haiek oroitzean nahi-taez aipatu behar da Joxe Mari Auzmendiaren izena. Hik Hasi irabazi asmorik gabeko kooperatiba sortu zuen duela 26 urte hezkuntzarekin hagitz konprometituta zeuden irakasle talde

batekin. Hezkuntza formazio eta dibulgazioa lan ildotzat hartuta, izen bereko aldizkaria kaleratzen dute geroztik, bereziki irakasleei bideratua.

Auzmendi Hik Hasiren sortzailea izan zen, baita “Hazi Hezi”-ren bultzatzaile nagusia ere. «15 urte generamatzen ‘Hik Hasi’ aldizkaria eskoletara bidaltzen, jardunaldi pedagogikoak antolatzen... eta familiek, pedagogoez eta psikologoek premia bat zegoela komentatzen zioten. Ziotenez, asko galduta zebiltzan eta ‘San Google’-era jotzen zuten loari, sexualitateari nahiz nerabearoko gatazkei

buruzko informazio bila, horrek daukan arriskuarekin. ‘Infoxikazio’ haren aurrean, galbahe bat, tresna fidagarri bat, behar zuten familiek. Auzmendi aurrera egiteko adorea batu zion horri», azaldu dio GAUR8ri Ainara Gorostitzu Muxika Hik Hasiko eta “Hazi Hezi”-ko langileak.

Garai beretsuan, eskolatik familiara eta herrira egin zen urratsa. Oinherri, orain hain indartsu dagoen herri hezitzaileen sarea, eratzen hasi ziren hainbat eragile, tartean Hik Hasi. Testuinguru horrekin lotzen da “Hazi Hezi”, herriarekin eta komunitatearekin. «Heziketa

tribu oso baten lana da, eta guk tribu moderno bat izan nahi dugu», nabarmendu du erredaktoreak.

AMEN BAKARDADEA

«Gurasoak oso bakarrik ikusten ditugu, bereziki amak, zer esanik ez pandemia eta gero. Eta funtzio hori bete nahi genuke: tribua, babesa, esperientzia trukatzea. Bokazio horrekin idazten dugu».

Erantsi duenez, aldizkariak arrisku handia dute emakumeek sentitzen duten zama eta errudun sentimendua areagotzeko: «Gauzak modu jakin batean egiten ez badituzu, zure seme-alabak atzean geldituko direla dirudi. Gure asmoa, hain zuzen ere, kontrakoa da: zaintza lanak gehiago partekatzea eta emakumeei zama eta errua kentzea».

«Erredakzioan lan handia egin izan dugu beti: amei karga arindu, aitak inplikatu, bestelako familia ereduak ikusarazi...», kontatu du Gorostitzuk. Bizipoza elkarteko kide dira eta beti aniztasuna islatu da beren orrialdeetan.

Zaintzaren ikuspegi feminista eta haurren errespetua dituzte oinarri.

EXIJENTZIA

“Hazi Hezi”-ko lantaldearen iritziz, exijentzia handiko garaia bizi dugu eta horrek ez dio batere mesederik egiten heziketari: haur edo nerabe bat hezteak behar duen tempusa eta munduaren abiadura handia ez dira bateragarriak. Kontsumismoak eta jendarte ereduak ere talka egiten dute haurren beharrekin. «Marketing oso bat ari zaigu umeak nola hezi behar ditugun esaten. Eta guk helduleku bat eman nahi diegu familiei, beste patxada batekin».



«Hazi Hezi»-ko kideak, joan den astean Donostiako Aquariumen aldizkari berritua aurkezteko egin zuten ekitaldian. Gorka RUBIO | FOKU

«Aldizkariak zama areagotzeko arriskua dute: gauzak modu jakin batean egiten ez badituzu, zure seme-alabak atzean geldituko direla dirudi. Gure asmoa kontrakoa da»

Hori dena hemengo profesional onekin kontrastatuta egiten dute. «Sare zabal bat dago, oso jantzita dagoena. Kide asko batu izan dira Hik Hasiren inguruan eta horiengana jotzeko aukera dugu».

BADATOR ALDAKETA

Ainara Gorostitzuk ederki oroitzen du nola, duela hamar urte, lanean hasi zirenean edozein gairi buruz hitz egiteko grabagailua pizten zutenean amek negar egiten zuten, bakarrik sentitzen zirelako.

«'Hazi Hezi'-ren sorreran parkeetako soziologia asko egin genuen, eta amen bakardadea, exigentzia, errua... ateratzen zen etengabe. Hausnarketa handi batera eraman gintuen horrek: gure produktuak ezin zuen hori elikatu; alderantziz, helduleku bat eman behar genuen zulo hori gaingintzeko. Eta feminismoaren ikuspegi horretatik egin dugu bidea».

«Nire iritzia pertsonala da, baina esango nuke zulo hori lausotzen ari dela. Feminismoak zaintza erdian jartzeko gutxienez diskurtsiboki egin duen lan hori ongarri bat ari da ezartzen. Baditu bere arriskuak, amok beste guztia baztertzeko, baina hori egon behar dugu, etengabe elikatzen, mahai gainean jartzen amatasunak ez gaituela emakume oso bilakatuko eta, era berean, ama bilakatutakoan ez garela izango emakume gazte, mendigoizale, kontsumista, eder hori. Aldaketa datorrela esango nuke».

«Beldurgarria zen zenbat negar egiten ziguten amek. Horregatik, gure ibilbide honetan oso garbi eduki dugu aitzak inplikatzeko saiatu behar genuela, familia eredu ezberdinak aurkezten, erreferentzia berriak, zaintza eredu ezberdinak. Bidelagun izan ditugun psikologo eta espe-

«Amatasunak ez gaitu emakume oso bilakatuko eta, era berean, ama bilakatutakoan ez gara izango emakume gazte, mendigoizale, kontsumista, eder hori»

zialistekin beti landu dugu perfekzionismoa urratze hori. Esango nuke kolektiboki hausnarketa eta praktika bat egiten ari garela amak ez zamatzeko».

BELAUNALDIEN ARTEKO ETENA

Belaunaldien arteko transmisioa galdu da. Penduluaren efektua aipatu du «Hazi Hezi»-ko kideak. Mutur batetik bertzerara pasatzea: umea ahalik eta lasterren haur eskolan uztetik beti berarekin egotera, adibidez. Sare ez digu balio izan aurrekoen ereduak, edo ez dugu ezagutu ere egin. Eten bat egon da.

«Eta bakardade horretan, aditu kontsagratu batzuen esana

norbere ama edo ahizparenaren gainetik jarri izan dugu. Bizi dugun ereduak eta pandemiak erabat isolatu gaituzte: gure haur jaioberriarekin topo egin dugu geure 80 metroko pisuan bakarrik, negarrez dagoen umea lehenengoz bularrean jartzeko ahaleginean». Heziketarako tribuak falta izan dira, baina ari dira eratzen, ari dira guraso taldeak eta bertzelakoak sortzen, beharra sumatzen delako.

NOLA DAUDE HAUR ETA NERABEAK?

Udaberriarekin batera kaleratu duten «Hazi Hezi» eraberrituan, aldizkariaren 40. alean, pandemiaren ondotik haur eta nera-

beak nola dauden aztertutako gai nagusia. «Ez dira subjektutzat hartu, azkenak izan dira, eta honetatik nola ari diren ateratzen jakin nahi izan dugu».

Elkarriketa nagusia Estitxu Fernandez psikologo eta bidelagunari egin diote, bertzeak bertze Erika Lagomarekin plazaratu berri duen eta irakurleek interes handiz hartu duten «Mama ama ume» liburuaren harira.

Adituez gain, arituak ekarri izan dituzte aldizkarira: adibidez, autismoa duten haurren familiak. Mila gai jorratu dituzte esperientziak azalduz, protagonistekin solastatuz. Oraingo honetan ama diren lau bertsolari elkartu dituzte: Uxue Alberdi, Erika Lagoma, Oihana Iguaran eta Amaia Agirre.

Hazieraren eta hezieraren etapa guztietarako gaiak eskaintzen dituzte: lehen urteak, urte gozoak, nerabezaroa, baita haurdu-



«Hazi Hezi»-ren 40. zenbakiko azaleko argazkia. Ion Markel Argazkiak



naldia ere. Azken honekin lotuta gurasoen tribuen inguruko erreportaje bat dakar zenbaki berriak.

Sormena ere lantzen dute aldizkariro, haur eta nerabeak sormen hutsa direlako. Oraingoan, Nerea Urbizu elkarrizketatu dute.

Badute bertze atal polit bat, hagitx estimatua, kontsultena: irakurleek zuzenean galdetzen ahal diete dietista, pedagogo, euskara aholkulari eta bertzelako adituei. «Indartu egin dugu atal hau, oso baliotsua delako». Ipuin eta eskulanetarako tartea ere badu «Hazi Hezi»-k.

ERAMANGARRIAGOA

Azaldu dutenez, beharrezko izan dute berritzea. «Denborak bizkortu egin dira, korrika bizi gara, presaka. Eta horregatik ere aldatu dugu 'Hazi Hezi'».

«Gero eta denbora gutxiago daukagu irakurtzeko, bereziki

gure publikoak, guraso berri eta hezitzaileek. Horregatik, formatua murriztu dugu. Lodiagoa da, baina eramangarriagoa, poltsan sartu eta dauzkagun tartetean irakurtzeko. Artisau lana da gurea, eta adituekin hitz eginez eta kalitatea mantenduz, arinago, freskoago, bisualago egiten saiatu gara. Emaizta oso polita gelditu da», azaldu du Gorostitzuk.

Berarekin batera, Ainhua Azpirotz, Olatz Lasagabaster, Uxue Ugartemendia eta Mikel Agirre-

«Hazi Hezi»-ko lantaldea: Mikel Agirrezabala, Ainhua Gorostitzu, Ainhua Azpirotz, Ainhua Gorostitzu, Olatz Lasagabaster eta Uxue Ugartemendia. Eta aldizkariaren lehendabizikoa, 2012koa. Patxi URANGA

«Gero eta denbora gutxiago daukagu irakurtzeko, bereziki gure publikoak, guraso berri eta hezitzaileek. Horregatik, formatua murriztu dugu, poltsan eramateko»

Elkarrizketa nagusia Estitxu Fernandez egin diote, Erika Lagomarekin plazaratu berri duen «Mama eme ume» liburuaren harira

zabalak osatzen dute «Hazi Hezi»-ko lantaldea. Hik Hasiko ki-deak dira. Lantalde horretan hiru kazetari dira eta oraingoan, Alaia Martin bertsolariak ere erredakzio lanetan lagundu die.

Urtean lau aldizkari ateratzen dituzte, mimo handiz eginak, eta urteko harpidetza eskaintzen dute 20 euroan. Hamar urteotan ez dute kuota igo, eta ez dute goititzeko asmorik ere. Hikhasi.eus webgunearen bidez egin daiteke harpidetza. Elkar dendetan ere salgai egoten da aldizkaria.

BUZOI GEHIAGOTARA HELDU

«Beharra badago, eta badakigu aldizkaria kalitatezkoa dela, gure zailtasuna ezagutarazte lana egitea da, gero produktuak bere kasa konbentzitzen du jendea», diote kideek.

Aurrera begirako erronka nagusia zabaltzea dute, beraz. Bu-

zoi gehiagotara iristea, haziera eta heziketa lana samurragoa izanen baita elkarrekin eginda. Bide horretan, 2022an Gipuzkoan jaiotako ume guztien familiei bidaliko zaie ale berezi bat, Foru Aldundiaren laguntzaz. «Eduki interesgarria jarri nahi dugu haur jaioberrien familien eskura, lagungarri izango diren artikuluen bilduma bat da», azaldu dute.

Kolaboratzaile batzuen izenak aipatu nahi izan dituzte, esker onez: Marije Sarrionandia eta Gontzal Martinez de la Hidalga pediatriak, Joxe Ramon Mauduit psikologoa, Nerea Mendizabal eta Alex Barandiaran psikopedagogoak, Aitziber Estonba sexu hezitzailea, Libe Garmendia nutrizionista, Iñaki Eizmendi euskara aholkularia, HUHEZIKO ikerlari Amaia Arroyo, Alvaro Beñaran psikomotrizista eta Ane Ablanedo.



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Eguzkiari topa

Aspaldi ez nuela Arantxa Tapiari buruzko no-tiziarik. Izango da, agian, euskal telebista oso gutxitan sintonizatzen dudalako. Autoan nindoan irrati publikoan entzun nuenean, esan bezala, aspaldiko partez. Kontua honakoa zen. Europako Eguna omen da maiatzaren 9a. Zerbaiten eguna izateak berak, egia esan, nekatu egiten nau, oso data seinalatuak ez badira. Badirudi egun horietan guztietan eguzkiari topa egitea libre dela. Lau hitz polit, argazkia eta listo.

Europaren Eguna delako horretan, gogoratu beharko genuke europarren arteko bakeari eta anaitasunari buruzko mezu artean 1950eko Schuman Adierazpena ospatzen dela. Hau da, Ikatzen eta Altzairuaren Europako Erkidegoaren, egungo Europar Batasunaren, abiapuntua. Hasiera-hasieratik eskuinak proposatu eta aurrera eraman zuen proiektua eta gerraostean sortu ziren ongizate estatuen zartatzea lehen unetik aurreikusi zuena, kapitalaren jabeen mesedetan.

Aurtengo Europaren Egunean, Arantxa Tapia izan zen erakunde publikoek antolatutako ekitaldiko protagonista. Nik espero nuen neoliberalismoaren apologia zabarra egingo zuela eta arazo guztien errua langileei egotziko ziela, ohi bezala. Esaterako, hilabeteetako grebaren ondoren Tubacexeko langileei epaileek arrazoia eman ondoren, greba hark gure herriaren irudi txarra eman zuela aipatu zuenean bezala. Edo absentismoari, ekonomiaren eta familien arazo berebizikoa omen denari, aurre egiteko asmoa tinko adierazi zuenean bezala. Baina ahaztu egiten dut Ekonomiaren Garapenerako sailburu izateaz gain, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua ere badela.

Horrenbestez, azaldu zuen Eusko Jaurlaritzak «hazkuntza jasangarriko estrategia bat» diseinatu duela jada, eta klima aldaketaren ondorioen aurrean «bizkortasun eta intentsitate handiagoa» eskatu zuen. Izan ere, eta edozer esatea libre denez, Tapiaren hitzetan, «ekintza guztiak, txikiak badira ere, garrantzitsuak dira». Adibidez, Azpeitian bertan Corrugados berrirekitzea, nahiz eta bertako udalak aurkako iritzia eduki. Edo AHT abiadura handiko trenaren eraikuntza faraonikoan tematuta egotea. Jakin badakit, Tapiak bere txikitasunean, ekarpen bikaina egiten duela eredu ekonomikoa zalantzan jarri eta etorkizunean

bizi daitekeen mundua irudikatzeko orduan. Nonbait, intimitatean egingo du, Aznarrek katalana bezala.

Tematuta egongo naiz ni, bere hitzetan ezer ez sinisterra eta etsai ideologiko argi bat ikustera. Ziurrenik izango da Madrileko Ayusok grazia handia egiten didalako eta barrenbarrenean, euskal Ayuso bat ere edukitzea gustatuko litzaidakeelako. Edozer esanda lasai geratzen den horietakoa eta gutxienez titular erakargarriak eskaintzen dituen. Baina Tapiaren kasuan, irribarrea ateratzea kostatzen zait, sikiera interbentzio txiki bat ere eskaintzen ez didalako umorez

har daitekeen horietakoa. Jarraituko dut itxaroten, ea berandu baino lehen Eusko Jaurlaritzaren esklerosi ideologikoak inplosionatzen duen eta haize berriak dakartzagun Euskal Herriko mendealde aldera... •

Ilustrazioa:
JONBI EGURTZEGI



{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Hilekoa

Egunotan, sexu eta ugalketa eskubideak babesteko eta haurdunaldia borondatez etenen dela bermatzeko lege organiko berriaren zirriborroaren berri izan dugu. Bertan, oraindik negoziatzen ari diren zenbait neurri jasotzen dira, hala nola hilekoaren artikuluen BEZa jaistea edo produktu horiek ikaste-txeetan, gizarte zerbitzuetan edo espetxeetan banatzea. Neurri horien artean zarata gehiena piztu duena, abortuaren eskubidea 16 urtetik gorako emakumeei zabaltzearekin batera, hilekoarengatik edo honek sortzen duen min handiagatik lanean baja izateko eskubidea izan da ziurrenik ere.

Eta ez nau harritzen, ez da kasualitatea gure gorputzarekin eta sexualitatearekin zerikusia duten gauza guztiak gizartearen begietara zaratatsuak izatea. Orain arte hilekoa emakumeontzat zerbait lotsagarria izan da, historikoki zikina izatera iritsi arte. Erlijio askotan, adibidez, hileko egun horietan emakumeok al-denduak bizi behar dugu, gure gorputza bekatuz betetzen delako. Gaur ere, telebistako iragarkietan esate baterako, gure hilekoa ez da gorria, urdina bai-zik, eta saltzen dizkiguten produktuak gure isurtzea desagerraraztera bideratu-ta daude. Beraz, logika horri jarraituz, zikina den hori, ezkutatu behar dugun horri bere lekua aitortzeak eta ikusgarritasuna emate-ak hainbat sektoretan sortu duen ezinegonan nahiko ulergarria iruditzen zait.

Jende askok izugarritzko minez bizi ditu bere hilekoak, dismenorreak pairatzen ditu, edo endometriosisa dauka. Eta horiek guztiak babesteko balio dezake legeak. Baina, horretarako balio edo ez, argi dago hilekoari ikusgarritasuna eman diola. Emakumeok naturaltasunez bizi izan ez dugun horri zentralitatea ematen dio eta garrantzitsua iruditzen zait legearekin batera diskurtsoen aldaketa bat sustatzea. Produktibitatearen beharretara egokitzen ditugu gure gorputz eta beharrak, kontuan izan gabe emakume cis-ak ziklikoak garela, ziklo horren nondik norakoak ezagutzen ez ditugun arren. Eta ezezagutza ho-

rren atzetik badago asmoa; diskurtsoa argia da: ezkutatu ezazu zure hilekoa, lotsatu zaitez, eta horretarako badituzu tanpoiak eta konpresak. Baina, noski, horiek oso garestiak direla ahazten zaigula dirudi eta horrek klase arrakala handitzen du. Izan ere, emakume askok ezin dituzte hilero horiek erosi. Zein garrantzitsua litzateke honen inguruko formakuntza eskoletan, maila ekonomiko guztietako neskek ezagutu dezaten badaudela produktu ekonomi-koagoak; kopa menstrualak, esate baterako. Edo, ia mundua erotuz gero, gure gorputza benetan ezagutuko bagenu, gai izanen ginатеke, munduko beste kultura batzuetan gertatzen den bezala, gure umetokia askatzeko eta gure barne muskuluak kontrolatzeko eta, horrela, odola nonahi eta noiznahi botatzeko. Baina noski, horrekin akabo emakumearen erreprodukzioaren inguruan egiten den komertzializazioaren parte bat.

Kapitalismoaren beharrei medikuntza androzentrikoaren begirada gehitzen zaio: gizonek egina gizo-

Sufrimenduan heziak izan gara eta horrek egin du emakumeak ohituegiak egotea gure beharrak bigarren mailan kokatzera. Gainera, hilekoa zerbait lotsagarria izan da beti. Hortik, zalaparta

nen beharrentzat. Medikuntzak historikoki emakume cis-en gorputzengan arreta jarri izan balu, gure zikloari begira biziko ginатеkeen, jakinda hilekoaren egunetan lasaiago egotea komeni dela, gure gorputza errespetatuz. Beste min baten eraginez lana eteteko eskubidea badaukagu, zergatik ez hilekoak eragiten digun minagatik etetea? Sufrimenduan heziak izan gara eta horrek egin du emakumeak ohituegiak egotea gure beharrak bigarren mailan kokatzera. Horri gehitzen badiogu hilekoa zerbait lotsagarria izan dela beti, ulertzekoa da askok pairatzen duten mina ezkutatu izana eta orain ikusgarri bilakatzeak sortu duen zarata. •

Lainotuta dago zera Zegamako plazara iritsi garenean, eta Aizkorri ezkutaketan jolas-ten ari dela ematen du, oraintxe agertu orain-txe desagertu. Bertan bildu gara Alberto Aierberekin, mendiari begia kendu ezinik.

Antolatzaileok nola ari zarete bizitzen probaren itzulera bi urte berezi hauen ostean?
Alde batetik ilusio handiz, eta bestetik pereza apur batekin ere bai, bi urte geldirik egon

ondoren martxa hartzea kosta egiten delako. Guretzako gogorra izan da lasterketarik egin ahal ez izatea, herriarentzako aste oso berezia izaten delako. Eta horregatik, orain gogoz eta ilusioz lanean, ea dena ongi ateratzen den.

Zerk ematen du lan gehien azken txanpa honetan?
Orain esku lana izaten da batez ere. Ez da aurreneko edizioa, ezta gutxiagorik ere, baina urtero izaten dira aldaketa batzuk, gauza berriren bat, aurtan ere bai. Adibidez, hon-

dakin gutxiago sortzearen ibilbidearen markaketan plastikozko zintarik ez dugu erabiliko, eta, aldiz, urte guztian egoten diren markak indartuko ditugu eta banderatxo batzuk erabiliko ditugu, gero jaso daitezkeenak. Edalontziak ere lehen erabili eta bota egiten ziren bezala, aurtan gorde eta berrerabil daitezkeen batzuk erabiliko ditugu. Eta lasterketak oihartzun mediatiko handiagoa hartzen duen heinean exijentziak ere gehitu egiten dira. Lasterketa jarraitzeko zuzeneko irudiak izatea,

«Argi daukagu Zegama herri txikia dela eta ezin duela parte-hartze handiagoa hartu. Horrek suposatuko luke azpiegitura eta logistika aldetik lasterketa eramanezina bihurtzea»

adibidez. Hau ez da errepidea, mendia da, eta mendian bada-kigu koberturarekin arazoak egoten direla.

Oso argi izan duzue aurreko bi urteetan ez zenutela lasterketa edozein moduz egin nahi, zalerik gabe edo data aldatuta, adibidez.
Bai, hala da. Lasterketa honek bere nortasuna dauka, bere izaera. Lasterketa honek ikur- rren bat baldin badauka, hori sortzen den giroa da. Lasterke- ta ikuslerik gabe egitea? Hori ez da Zegama-Aizkorri Mendi



«Korrikalari eta zaleen artean ‘feeling’ berezi bat sortzen da eta hori nabaritu egiten da lasterketan»

Maratoia, hori beste gauza bat da. Korrika egin liteke mendian ikuslerik gabe, urte guztiko edozein egunetan, baina lasterketa egunean giro berezi hori edukitzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu.

Aurten ere Salomonen Golden Trail zirkuituan sartuta zaudete; horrek goi mailako parte-hartzea ziurtatzen du.

Jakina denez, guk arazo bat izaten dugu: partaidetza mugatuta daukagu 500 korrikalarira. Horietatik, 225 dortsal zozketara joaten dira, nahiz eta aurten ez den zozketarik egin 2020an egina zegoelako eta hori mantendu dugulako. Beste 125 aurreko urteko denbora onenak lortu dituztenentzat gordetzen dira, izena ematen badute behintzat. Eta gainontzekoak nazioarteko konpromisoentzat izaten dira. Zer gertatzen da, bada, Golden Trail zirkuituan egonda eta lasterketak hartu duen ospearekin izugarrizko eskaera mordoa izaten ditugula. Hor arazo batzuk izaten ditugu, baina lekua mugatua da. Argi daukagu Zegama herri txikia dela eta ezin duela parte-hartze handiagoa hartu. Horrek suposatuko luke azpiegitura eta logistika aldetik lasterketa eramanezina bihurtzea.

Prozesua zein izaten da? Babesleak erabakitzen du nor etorriko den?

Korrikalariak babesleak eskatu egiten diote non korritu nahi duten. Aurten 200 bat lagunek eskatu diote Salomoni Zegaman korrika egin nahi dutela. Noski, hori ezinezkoa da. Erdiarentzat egongo da lekua gutxi gorabehera. Eta aukeraketa hori nola egiten da? Markak halako ranking moduko bat egiten du eta horren arabera

erabakitzen du nori eman aukera eta nori ez. Dakizuen bezala, Kilian jada ez da Salomoneko korrikalaria, beste talde bat sortu dute, baina maila horretako korrikalari bati ezin zaio ezetz esan. Guk maila horretako korrikalariak ere onartzen ditugu. Azken batean, lasterketarentzat ona da eta ikuskizunarentzat ere bai.

Aipatu duzu lasterketaren ezaugarri nagusia zaleen berotasuna dela. Baina antolatzailerak korrikalariei ematen diezuen tratua ere nabarmendu izan duzu askotan.

Bai, baina onartu behar dut alde horretatik gero eta desberdintasun gutxiago dagoela beste lasterketa batzuekin alderatuta. Lasterketak oihartzun handia hartu du eta mundu guztiko kazetariak etortzen dira, eta horrek zaildu egiten du harreman hori. Baina egia da Zegamako herri-tarrak ez direla ibiltzen fanatiko moduan korrikalarien atzetik, nahiko lasai uzten ditugu, eta horrek aukera ematen die lasterketa ondoren garagardo pare bat lasai hartzeko nahi badute. Herri txiki bateko giro hori asko eskertzen dute. Eta Sancti Spiritu edo Aizkorri jendez beteta dagoenean ere, ez da bakarrik buila eta animoa. Argazkietan fijasen bazara ikusleen aurpegietan ere nabaritu egiten da nola bizi duten une hori. Korrikalarien eta zaleen artean *feeling* berezi bat sortzen da eta hori nabaritu egiten da. Oraintxe dator kit argazki bat burura, Florian Reichert alemaniarrarena, zerruan balego bezala besoak jasota. Horrek ematen dizu poza eta lanean jarraitzeko gogo.

Hogei urte beteko dira aurten lehen ediziotik. Lasterketa

nola sortu zen ikusita ez dago batere gaizki.

Udaletxean alkate gazte bat sartu zen, Juan Inazio Galdos. Herri hau badakigu non dagoen, Aizkorri kontran ezkutuan, Zegamako papelera ere aspaldi itxi zen, 1987an, zegoen industria apurra ere desagertu egin zen... Normala den bezala, herriko gazteek joera hartu zuten industria zegoen inguruetara alde egiteko eta herria biztanlez jaisten ari zen. Galdosek bultzada bat eman zion herriari 2000. urte inguru horretan: etxe berriak egin ziren, industrialde bat eraiki zen... Amezti mendi elkartera ere zuzendu zen ea Aralarren egiten zen modura Aizkorriko Lagunen Eguna edo horrelako zerbait antolatu zitekeen. Uztailerako aurreneko igandean adibidez, eta egun hori jarri zen azkenean. Zegamatik irteten, Aizkorri igo, Sancti Spiritu zerbait jan, trago bat egin... herri giroan zerbait antolatu. Eta horretaz ari ginela, nik aipatu nuen entzunda neukala Aneto X-Treme izeneko lasterketa bat egiten zela Benasque aldean. Eta Zegaman, Aizkorri bertan edukita, egin zitekeela antzeko zerbait. Batzuek barre egiten zidaten, baina besteren batek esan zidan ez zela ideia txarra. 2000. urtea izango zen, eta nik hori entzundakoan zer egin nuen, bada, etxera joandakoan mapa atera, 1:25.000, eta ibilbide bat prestatu: kontrol batzuk jarri, jaten eta edaten emateko lekuak... Gogoratzen naiz oraindik gurutze gorri batzuk nola jartzen nituen. Iritsi zen 2001eko Aizkorriko Lagunen Eguna, eta Sancti Spiritu geundela Julian Beloki gerturatu zitzaidan: «Hi Alberto, etor hadi. Hemen bazegok beste gizon bat hik esaten huen

ALBERTO AIERBE

ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIAREN ANTOLATZAILE TALDEKO KIDEA

Bi urteko geldialdi behartuaren ostean,

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia

maiatzaren 29an itzuliko da,

indarberrituta, lehen aldiz egin zenetik

20 urte betetzear direnean.

Asier Aiestaran

berdina esaten duena». An-txon Bandres zen, Euskadiko Mendizale Federazioko presi-dentea. Gerturatu nintzen eta hantxe ari zen, «hemen mara-toi bat egin behar da» esanez. «Bada, nik ibilbidea prestatuta daukat –esan nion–, erakutsi-ko dizut nahi baduzu herrira jaitsitakoan». Halaxe egin nuen. «Hau egin beharra dago bai ala bai», esan zuen. Eta ha-laxe hasi ginen lanean.

Aipatu duzun Anetokoaz gain, besteren bat egiten zen ordurako?

Katalunian batzuk egiten zi-ren, Madrilen MAM edo Mara-ton Alpino Madrileño zelakoa, Trevelezen ere bai... Beraien artean ligaxka moduko bat ere egiten zuten. Baina guk mendi lasterketa bat zer zen ere ia ja-kin gabe antolatu genuen au-rrenekoa, 2002ko uztailaren lehen igandean, San Fermin eguna tokatu zena, gainera. Aizkorriko Lagunen Egunare-kin batera antolatu zen, data hori baliatuz erromeriaren ai-tzakian mendian ere jende gehiago bilduko zelakoan. Arrakasta dezentea eduki zuen, uste dut 226 korrikalarik hartu zutela parte, gehienak euskaldunak, ingurukoak ba-tez ere. Organizaciones DV-k ere esku bat bota zuen, eta in-dar pixka bat hartu zuen. Eta 2003an Espainiako Federazio-ak Espainiako Kopan sartu zuen, lehen aipatutako laster-keta horiekin batera. Orduan estatu mailako korrikalari onenak etortzen hasi ziren, eta tartean Albert Balcells katalu-niarra. Korrikalaria zen, baina munduko zirkuituko zuzenda-ria ere bai. Parte hartu zuen eta engantxatuta geratu zen, ikaragarri gustatu zitzaion. Eta gogoratzen naiz urte horreta-ko udazkenean deitu zigula



Andoni CANELLADA | FOKU

galdetuz ea nahi genuen Mun-duko Kopan sartu. Noski, gu harrituta gelditu ginen, baina hark bazekien beste lekuetan zer zegoen, eta 2004an, hiru-garren ediziorako, jada Mun-duko Kopan geunden. Hori bai, eskatzen ziguna zen las-terketa maiatz aldera pasa-tzea, gureak 1.500 metroko al-tuera bakarrik zeukanez eta zirkuituko beste proba asko garaiera handiko mendietan egiten zirenez haiek udan egi-tea ezinbestekoa zelako elurra-gatik eta abar. Horregatik pasa

genuen maiatzera, salbuespen bakarrarekin. 2007an eskatu genuen zirkuituko azken pro-ba izatea, eta irailaren 23an egin zen, oker ez banago. Eta horrela hasi ziren etortzen ita-liarrak, frantsesak, ingelesak...

Lasterketak Zegama mapan jarri du. Helburua hori bazen, ederki lortu da.

Zalantzarik gabe. Mendiko mundu honetan behintzat oso ezaguna da Zegama. Askori pa-satu izan zaigu batera edo bes-tera joandakoan. Niri, adibi-

dez, iazko abuztuan. Dolomi-tetara joan emaztearekin eta hotelean datu estatistikoak biltzeko galdetzen zutela ea nongoak ginen: herrialdea, he-rria... Zegamakoak ginela aipa-tu eta han denak harrituta. Oihartzuna badauka. Noski, oihartzuna dauka mendiko eta mendi lasterketen mundutxo horretan, hau ez da futbola. Zorionez esan beharko, ze ho-rrela balitz auskalo nor agertu-ko litzatekeen hemen, enpresa edo babesleren bat akaso he-rria bereganatu nahian.

«Hasi ginenean baino 20 urte gehiago ditugu, horrek ez du barkatzen. Baina herriak eta herritarrek nahi duten bitartean Zegamako maratoia egingo da»



Antolaketa lanak boluntario-ekin egiten jarraitzen duzue.

Bai, baina ez dakiguna da epe ertain edo luze batera hori po-sible izango den. Egunean ber-tan lan bat edo beste egitea errazagoa da, baina hemen ba-gaude bost edo sei lagun sei hilabete pasatzen ditugunak etengabe honen gainean. Eta adinean ere aurrera goaz, hasi ginenean baino 20 urte gehia-go ditugu, horrek ez du barka-tzen. Baina herriak eta herrita-rrek nahi duten bitartean Zegamako maratoia egingo da.

Parte-hartzeari dagokionez, aipagarria da Kilian Jornet Zegaman izango dela aurten ere. Kataluniarrak bederatzi aldiz irabazi du proba eta, Alberto Aierbek onartzen duenez, harreman oso berezia du Goierriko herriarekin.

«Kilian 2007an etorri zen lehen aldiz Zegamara, 18 urte zituela. Orduantxe ari zen lasterketa hauetan sartzen. Urte hartan gogoratzen naiz lau lasterketa irabazi zituela orduan Buff Skyrunner World Series izena zeukan munduko zirkuituan, ISFk (International Skyrunning Federation) antolatzen zuena. Urte hartan berak irabazi zuen, hurrengo urtean berriz... gogoratzen naiz urte batean omenalditxo bat ere egin geniola, hartzen ari zen indar mediatikoa ikusita uste genuelako Zegamara etortzeari utziko ziola. Halaxe komentatu nion nik ere. 'Eskerrik asko, Kilian, eman diguzun guztiagatik', 'agian ez dugu gehiago elkar ikusiko' edo horrelakoren bat bota nion. Gogoratzen naiz nola erantzun zidan: 'Ez, ez, ni bidali egin beharko nauzue herri honetatik'. Eta onartu behar da orain arte esandakoa betetzen ari dela», gogoratu du Aierbek.

«Eta bere beste esaldi bat ere famatua egin zen. Elkarrizketa denetan galdetzen zioten ea zer zeukan horren berezia Zegama-Aizkorri mendi maratoiak. Beste lasterketa ospetsu askotara ez zen joaten, edo urte batzuetan joatea erabakitzen zuen eta beste batzuetan ez, eta Zegaman urtero azaltzen zen. Bere erantzuna izaten zen: 'Zegama da Zegama'. Adjetiborik gabe. Mendi lasterketa giro hori... Askok maite du Zegama, zegamar batzuk ere bai, berdin du mendi lasterketez ideiarik ez duen aitona bat

Kilian Jornet hamargarren garaipenaren bila eta zazpi afrikar Salomonen eskutik

bada ere. Bera oso baloratua sentitzen da hemen, eta horrek asko balio du. Eta uste dut hori korrikalari askori gertatu zaiela, behintzat mendia mai-

te dutenei. Izan ere, orain egia da mendi lasterketara atletismotik jende asko etorri dela, eta hori asko nabaritzen da. Nork daukan mendiko sen ho-

ri eta nork ez. Eta Kilianen kasuan, ez dago esan beharrik, denok dakigu nola jaio zen mendiko aterpetxe batean eta nola ibiltzen zen bertan. Eta hark bezala beste askok. Hauek korrikalariak baino gehiago mendizaleak dira, nahiz eta korrika oso azkar egin», gaineratu du.

KENYATIK ZEGAMARA

Berrikuntza nagusia, aldiz, Salomonen eskutik parte hartuko duten zazpi korrikalari afrikarrak dira, Ben Kimtai kenyarra buru dutela. Kimtai bigarren izan zen Transgrancanarian eta hirugarren Gorbeia Suzien eta Marato Piri-

neu probetan, eta dokumental bat ere egin dute hari buruz: "Ben Kimtai. Kenia, a la conquista del Trail". Octavio Perez entrenatzaileak gidatutako proiektua da eta dioenez, «beti dago bidea irekitzen duen atleta bat, eta kasu honetan Ben Kimtai eta Monica Cheruto dira. Kenyan bizi eta Europako trail zirkuituan lehiatzen diren lehen atletak dira».

Aierberi galdetuta, ibilbidearen zailtasun teknikoak aipatu ditu afrikarrentzat oztopo nagusi moduan. «Ikusi egin beharko da nola moldatzen diren ibilbide tekniko honetan. Bestela badakigu zer maila izaten duten korrika. Mendia aipatzen dugu, baina mendia ez da desnibela bakarrik, igo eta jaistea, baizik eta zer ingurutant zabilzan. Suitzan egiten den Sierre-Zenal lasterketan, adibidez, bide gehienak metro edo metro eta erdikoak dira, hartxintxardunak, korrikarako oso egokiak, etengabe eman eta eman jardutekoak. Baldintza horietan lehen ere bikain ibilitako afrikarrak badira. Baina horrek ez dauka zerikusirik honekin. Hemen 1.551 metroan dago punturik garaiena, altuera aldetik ez dauka ezer lasterketa honek, baina bide traketsa, kare-haitza, orbela, basabidea, euria eginez gero leku irristakorak... Teknikoki oso ongi prestatuta egon behar duzu, bestela denbora asko galtzen da. Jende honek arazo gutxien igotzen izaten du, edo ordekan. Baina batez ere jaisten asko sufritzen dute».



Ezkerrean, Ben Kimtai kenyarra, Gorbeia Suzien lasterketan. Behean, Kilian Jornet 2019ko Zegama-Aizkorri maratoin. Diego ESCOBEDO - Gorka RUBIO | FOKU





Jon URBE | FOKU

IKUSMIRA

IDOLOAK

Norberak aukeratzen ditu bere idoloak. Begira dagoenaren begiek erabakitzen dute pertsona batean zer den nabarmentzekoa, liluragarria, apartekoa. Haurtzaroa eta nerabezaroa idoloak pizteko garaia izaten da; handitzean nolakoak izan nahiko luketen, noren antza izan nahiko luketen... Erreferenteak garrantzitsuak dira haiei begira bidea egiten dutelako atzetik datozenek. Ez bada-go emakume futbolariak begien parean, lehen lerroan, zelai handietan, fokuen azpian, nola irudikatuko du neskatoak bere burua futbolari bezala? Hamarkada gehiegi itzalpean. Denbora gehiegi begiratzeko ispilurik gabe. Bidea ez da samurra izan eta fokuek ez dute oraindik merezi adina argitzen. Baina, gutxienez, haurrek eta nerabeek badute begiratzeko ispilua, badituzte neurriko idoloak eta futbolari izango direla amestu dezakete. Eta amesteko aukera bera bidean abiatzeko bultzada ederra izan daiteke. Amagoia Mujika Telleria

Isunak

Joxean Agirre

Uste dut pertsona bakoitzak due-
la bere abiadura. Badaude *re-
pris*-ik gabeak, goizetan gurina-
rekin ogi txigortuak
lardaskatzen denbora galtzen dutenak.
Nik zutik gosaltzen jarraitzen dut, mun-
dua itxaroten banu bezala, nahiz eta ba-
dakidan ez dudala premiazko egiteko
bakar bat. Badaude *ralentian* bizi dire-
nak eta hizketan hasi orduko logalea
eragiten digutenak ere.

Errepidean bizi gidatzea gustatu izan
zait, alai, gazte batek bezala, eta autobide
bat harrapatzen nuenean ezkerreko
errailan jartzen nintzen gehienetan eta
begi bat errepidean eta bestearekin pa-
rajea ikusmiratuz joaten nintzen, 80 jar-
tzen zuen lekuetan 85ean eta 100 jartze-
an zuenean 110ean beti, mugaz behetik
egundo ez. Horrekin ez dut esan nahi

arriskugarria nintzenik. Hemezortzi ur-
terekin gidabaimena atera nuenetik mi-
laka kilometro asko egina naiz. Solda-
duska kamioi batekin burutu nuen eta
Madrilgo kale zaratatsuetan ibiltzen gi-
nen kanoi handi bat arrastaka genuela
eta ez dut sekula santan kolperik eman,
atzetik pare bat aldiz jo banaute ere, Ei-
barko semaforo batean behin, gidabai-
menik gabeko gazte batek. Errukitu eta
etxera joateko esan nion.

Horrela nenbilen zigorrak iristen hasi
zitzaizkidan arte. Oso egun gutxiren tar-
tearekin hiru isun ordaindu behar izan
ditut eta gidatzeko modua aldatu zait
ezinbestean. Ez dakit zenbat iraungo di-
dan, baina begirada errepidean iltzatuta
eta bi eskuak bolanteari atxikita, eskui-
neko errailetik ibiltzen hasi naiz, ka-
mioitzarren atzetik gidari gregarioen

antzera eta badakit ibiltzeko modu ho-
rrek aldartea aldatuko didala eta hasi
zaidala umorea ere mingosten eta luza
gabe hurkoari klaxona joz bukatuko du-
dala edo leihatila jaitsi eta egundokoak
esaten edo, okerragoa dena, istripuren
bat izatera iritsi naitekeela, bizi nindoa-
nean baino arrisku gehiago dudala sen-
titzen baitut abiadura motelean.

Bizikleta gainean bezalaxe, gutxiene-
ko abiadura bat behar da bizitzan. Gure
etxeko sukaldean presio-eltzea da erre-
ge eta moldatzen gara. Slow mugimen-
dua ederra da kazetaritzan, baina eskar-
mentuz dakit azkar idazten dutenak
direla onenak askotan. Eta politikariei
buruz zer esan? Badaudela tai jia prakti-
katzen dutenak, zerbait egiten ari diren
itxurak egiten dituzte, baina betiko le-
kutik mugitu gabe. •

«Ez da hainbesterako, neska»

Amagoia Mujika
Telleria

Haurdun nengoenean behin bai-
no gehiagotan aipatu zizkida-
ten behien erditzeak, nireak
horien antzekoak izango zirela
iradokiz. «Errapeko minaz» ere hitz egin
izan zidan gizonezkoren batek, erditu
berritan nire bularretako mina noraino-
koa zen bazekiela adierazi nahian edo.

Gero, beti dago bere izebaren erditzea
graziaz kontatzen dizun gizonezko hori.
Bai, bai, harraskan platerak garbitzen ari
zela erditu omen zen, konturatu gabe.
Inguruan zebilen ahizpak moztu zion
zilbor-hestea eta jaioberria eskutrapua-
rekin garbitu zuen. Eta, gero? Ba, gero
segi sukaldea garbitzen, zer egingo
zuen, ba? Amonak erditu baino lehen

porru-patatak utzi zituen prest sukalde-
an; amonaren ama baratzeko lanak
amaitu arte ez zen etzan ohean erditze-
ra; eta urruneko izeba bati haurra irris-
taka atera zitzaion hanka tartetik komu-
nean. Eta horrela segi eta segi, mitoak,
kondairak eta gertaerak nahasian, hel-
buru bakarrarekin: Erditzea ez da hain-
besterako, neska.

Hilekoaz, berriz, apenas hitz egiten da.
Baina inguruko emakume gehienek
izango zuten, ba, hilekoa? Baina, hori,
ixo. Ezkutatu beharrekoa eta garrantzi-
rik gabe bizi beharrekoa dela erakutsi
digute. Eta inguruan hilekoarekin oso
gaizki pasatzen zuenik bazen –eta ba-
zen–, exajeratua eta ahula zela iradoki-

tzen genion. Guk geronek, inguruko
emakumeek. Hilekoa ez da hainbestera-
ko, neska.

Emakumearen gorputzarekin lotuta-
ko gauzak garrantzirik gabekoak direla
saldu digute. Gure minek ez dutela min
ematen sinisteraino. Eta guk ere askotan
tapatu ditugu gure minak, horrek ahu-
lago eta zaurgarriago egingo gintuelako-
an.

Hilekoa albistegietako gai bihurtu da
eta ezin kokatu gabilta, tankera ezin
hartu onerako edo txarrerako ote den.
Ohitura falta izango da. Baina bai, ema-
kumearen gorputzarekin lotutakoak ga-
rrantzitsuak dira; eta, ez, gizonezkoek
horri buruz ez daukazue ideiarik. •

HOMOFOBIA ESKOLAN

LGTBI ikasleen erdiek irainak jasotzen dituzte ikastetxean, ikerketa baten arabera

 JENDARTEA / GAUR8

Stonewall Britainia Handiko elkarteak egin duen ikerketa kezkarria da eta argi erakusten du jarrera homofoboak oso ohikoak direla oraindik ikastetxeetan. Hala ere, eta aurreko asteartean Homofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatu zela gogoratuz, esperantzarako ate bat irekita uzten du: azken urteetan egoerak hobera egin du.

Sexualitatea gizartearen gehiengoaren aldean desberdin bizitzea oraindik ere onartu gabe dago ikastetxe askotan. Stonewall Britainia Handiko lesbiana, gay, bisexual eta transgeneroen (LGTBI) berdintasunerako elkarteak egin duen ikerketa baten arabera, LGTBI ikasleen erdiek irain homofoboak jasaten dituzte ikastetxean «sarritan». Kezkarria da, adituen ustez, gizartearen gertatzen ari denaren isla baita.

«Ikastetxe bateko jolastokian lasai asko entzun daiteke norbaiti ‘marikoia’ oihukatzen, oihua jasotzen duena homosexuala izan ez arren, besterik gabe, pertsona horren sexualitatea oraindik definitu gabe dagoelako. Eta nerabezaroan ere intentzionalitate osoz esaten jarraitzen da joera homosexuala iradoki dezakeen jokaeraren bat antzematen bada», aipatu du Sylvie Perezek, Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) Psikologia eta Hezkuntza Zientzietako irakasleak. «Noski, horrek ondorio negatiboak izan ditzake, adjektiboa pertsonaren izaera edo ezaugarri negatibo batekin lotzen delako. Jasotzen den mezua da homosexualitatearekin harremana duen guztia nega-

tiboa dela eta mespretxua me-rezi duela», gaineratu du.

Irain horien ondorio negatiboaren artean osasun mentalarerkin zerikusia duten zailtasunak aurkitzeraino irits daiteke. Adrian Montesano UOCeko Psikologia eta Hezkuntza Zientzien irakasleak azaldu duenez, «irain horiek entzuteak ondorio bezala ekar dezake epe laburrean bazterketa sentitzea, marjinalizazioa eta estigmatizazioa berdinen multzoarekiko, eta horrek kalte nabarmena sortzen du».

Epe luzeago batera, ondorio are eta larriago bat dago: homofobia barneratzea. «Zentzu horretan, jada ez da beharrezkoa kanpotik jasotzea estimulua, bazterketa, baizik eta diskurtso bat gehiago bezala ulertzen da, harekin elkarbizitzaren da, eta orientazio sexuala onartzeko garaian beste arazo batzuk sor ditzake: identitate pertsonala nola garatzen den, armairutik ateratzeko barne eztabaidak talde sozial desberdinetan, familia... Osasun mentalean ondorioak izan ditzaketen elementuak dira», Montesanoren ustez.

Esandakoaren adibide dira aipatutako ikerketak jaso dituen hainbat datu. Bost gazte transexualetatik lau baino gehiago autolesionatu egin dira noizbait, eta baita bost gaz-

te lesbiana, gay edo bisexualetik hiru ere. Adituek ingurukoen onarpenik ezak sortzen duen autogutxiestearekin erlazionatzen dute joera hori. «Ez da arraroa hau gertatzea diskurtso sozial heteronormatiboez askatasun indibiduala eta genero espresioa eta espresio sexualaren dibertsitatea zapaltzen dutenean, nahiz eta autolesionatzea ez den LGTBI komunitatean soilik gertatzen den mekanismoa», nabarmendu du irakasleak.

GUTXIAGO ETORKIZUNEAN

Errealitatea hori izan arren, adituek uste dute urratsak egin ari direla dibertsitatea normalitate bilakatzen has dadin haurtzarotik hasita. Eta datuek ere hala erakusten dute. Stonewall elkartearen ikerketak erakusten du orain dela hamar urte handiagoa zela ikastetxean irain homofoboak entzuten zituzten ikasleen proportzioa: 2012an hamar ikasletik zazpi ziren egoera hori pairatzen zutenak.

UOCeko irakaslearen iritziz, orain askotariko diskurtsoen garaian gaude, batzuk inklusi-boagoak eta beste batzuk heteronormatiboagoak edo diskriminatzaileagoak. «Ikuspegi historiko batetik, ez dugu bistatik galdu behar asko aurreratu dugula gai honetan bi arra-

Irudi nagusian, Naizen adingabe transexualen familien elkarteak antolatutako ekitaldi bat. Behean, gaztetxo batzuk Ikusgune Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiak antolatutako beste ekitaldi batean, eta ikasgela huts baten irudia.

Jaizki FONTANEDA - Aritz LOIOLA | FOKU





zoi nagusirengatik: lehenik, orain datu hauek albiste bilakatu daitezkeelako eta iraganean ez lirateke notizia izango; bigarrenik, testuinguru batzuetan dibertsitatea normalizatuagoa dagoelako. Are gehiago, gerta liteke kasu batzuetan korrante dominantea (ingelesez 'mainstream' esaten dena) ez izatea heteronormatiboa, batez ere nerabezaroan, non identitatearen esplorazioa bizitzako lan garrantzitsuenetako bat izaten den. Gaur egun inoiz baino gehiago bizi gara multibertso edo multidiskurtso batean, bi polaritateak barne».

Horixe da, esaterako, Madridgo LGTBI kolektiboak (COGAM) egindako ikerketak marrazten duen eszenatokia: ikasleen %89 ez da «inola ere» ados agertzen «orientazio afektibo-sexuala ezkutatu behar dela» dioen ideiarekin, edo biztanleen %89k familia

homoparentalak beste edozein familia bezain baliagarriak direla uste dute. Horretan zerikusia izan dezake gero eta eredu gehiago daudela, maila profesional eta pertsonalean arrakasta duten pertsonak, LGTBI direla publiko egin dutenak. Baina, batez ere, garrantzitsua da ikastetxeetako irakasleen papera, gakoa baitira ikasle bakoitzaren izaera sexualagatik gerta daitezkeen egoera diskriminatzaileak ekiditeko.

«Alde batetik, diskurtsoaren autoritatea dira. Haur eta nerabeek erreferentzia dituzten helduak hartzen dituzte, irakasleak adibidez, diskurtso jakin batzuk legitimatzen edo deslegitimatzeko dituzten pertsonatzat. Gainera, uste dut paper koertzitibo bat, ukapen edo zigorra erabiliz, ez dela lagungarria ez norabide batean ez bestean. Kontrara, arazo gehiago sortzen ditu. Helduek

ahalik eta inklusiboenak izaten saiatu behar dute, eztabaidatzeko gai, pentsarazteko eta, batez ere, argumentatzeko gai», dio Montesanak. Bere esanetan, kontua ez da ondo zer dagoen eta zer ez esatea, baizik eta hori argudiatzea eta, argudiatze horretatik abiatuta, diskurtso mota batzuk legitimatzea edo deslegitimatzeko.

«Maitasun eta sexu harremanetan ezin dugu ezer hartu erabateko egiazat; horregatik kontua ez da inor doktrinatzea, baizik eta argumenta-

Bost gazte transexualetatik lau baino gehiago autolesionatu egin dira noizbait, eta baita bost gazte lesbiana, gay edo bisexualetatik hiru ere. Onarpenik ezak sortzen du autogutxiatea

Orain dela hamar urte handiagoa zen ikastetxean irain homofoboak entzuten zituzten ikasleen proportzioa: 2012an hamar ikasletik zazpi, ikerketa honen arabera

tzea. Helduek heldutasuna erakutsi behar dute, beren izaera, orientazio edo iritzia pertsonaletik harago argumentazio dibertsitate hau ahalik eta egokien lantzeko, eta diskurtso dominante homofobo edo transfobo horren konplize ez izateko, ez zuzenean eta ez zeharka».

Etxetik ere borroka daitezke erreakzio homofoboak. Sylvie Perez irakasleak azaldu duen bezala, kontua ez da seme-alabei hitzaldi bat ematea, baizik eta «norberak bere buruarekin hausnarketa sakon bat egitea, jakiteko benetan zer puntutaraino errespetatzen ditugun benetan beste pertsonak haien sexualitatea epaitu gabe. Beharrezkoa da ditugun zalantzak zintzotasunez plazaratzea eta gaiaren inguruan ikastea, irakurtzea, informazioa eskatzea... diskriminazio mota hau betikotzea ekiditeko». Gainera, adituak gehitu duenez, ezinbestekoa da seme-alabekin komunikazio espazioak sortzea modu natural batean, adin bakoitzarentzat egokitua.

Hori egiteko modu bat da, adibidez, telesail edo filmetako LGTBI protagonistak aitzakiatzat hartzea dibertsitate sexualaren inguruan hitz egiteko. Edo lesbiana, gay, bisexual eta pertsona transgeneroen berdintasunaren alde lan egiten duten elkarrekin elkarlana bultzatzea eta gaia lantzeko antolatzen diren ekitaldietara joatea.

«Garrantzitsuena da gaur egun posible den edozein maitasun modu bisibilizatzea eta legitimatzea, eta asko dira. Historian inoiz ez da egon horrenbeste maitatzeko modu sozialki bisibilizatuta», nabarmendu du Adrian Montesanak.



Arantxa Urbe - @arantxaurre
Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

«Berdina» eta «parekoa»: ñabardurak

Gutako bakoitza bakarra eta errepikaezina da. Bakarra eta errepikaezina zara zu, eta bakarra eta errepikaezina naiz ni ere. Pertsona orok dugun originaltasun hori harribitxi preziatu moduan zaindu beharko genuke; baita eskolan ere.

Salbuespenik gabe denok dugun eksklusibitate horren aurrean, ordea, eguneroko jardunean beste ideia eta praktika bat gailentzen da. Denoi berdin egiteko eta tratatzeko obsesioa. Berdintasun hori ia printzipio demokratiko gisa hertsiki hartuta, uniformizazioranzko bide arriskutsuan abiatu gara: berdintasunaren pedagogia aplikatu nahian gabiltza, denentzat hezkuntza irteera profil berdina ezarri nahian, ebaluazio berdina... Baina horrek guztiak zenbat egingo digu kalte eta zenbat egingo digu alde?

«Parekoa» termino interesgarriagoa, justuagoa eta begirunetsuagoa da, zalantzarik gabe: zu eta ni parekoak izan gaitezkeelako berdina izan gabe. Berdina, sekula izan ezingo garelako, gainera.

Eta «parekoa» kontzeptutik zehar begiratzen badugu, ikusiko dugu bakoitzarekin –ikasle bakoitzarekin, gure kasuandesberdin egin beharko dugula, aukera eta bitarteko desberdina eskaini beharko dizkiogula inoiz parekotasuna lortuko badute. Beste era batera esanda, parekotasuna lortzeko, alegia, desberdintasunetik lan egin beharko dugula eskolan. Horixe da –edo horixe beharko luke, behintzat– hainbeste aipatzen dugun «aniztasun» hitzaren esanahia. Nahi duzun adiera guztietan: kulturala, ekonomikoa, erlijiosoa, hizkuntzarena, gaitasunena, funtzionala eta abar.

Milaka kolore dauzkagu, zorionez, gure eskoletan, geletan, taldeetan. Gutako bakoitzak jartzen diogu koloreari ñabardura gure izate bakar eta errepikaezinarekin. Nola erantzun diogu, baina, aniztasun horri guztiari?

Ez dirudi ikasle guztiei, neska-mutil guztiei eta bakoitzari berdina emanez eta berdina eskatuz lortuko dugunik. Bakoitzaren arrakasta ziurtatuz, eta arrakasta horre-



Gutako bakoitza bakarra da. Berdina izan ordez, parekoak izatea bultzatu beharko luke hezkuntzak. Juanan RUIZ | FOKU

tarako bidean bakoitzaren desberdintasuna aintzat hartuz lortuko dugu, lortzekotan.

Francesco Tonucci pedagogo italiarrak argi dio: «Eskolak ez luke helburu gisa izan behar denak berdina izatea: aitzitik, desberdina izatea, diferenteak izatea beharko luke. Aniztasunei balioa emanez».

Autore berak gaineratu zuenez, «aniztasuna balio gisa onartu behar dugu, eta ez arazo gisa. Horretarako, ikasle guztiak desberdina direla onartu beharko genuke. 'Aniztasunaren' definizioan ikasle gehienak berdina direla eta beste batzuk desberdina direla (ezintasunen bat dutenak, atzeritarrak edo gaitasun handiak dituztenak, esaterako) kontsideratzeko trampa egon daiteke». Erne ibili behar dugu dugun aniztasunaren definizioa trampa horretan eror ez dadin.

Izan ere, «berdina» eta «parekoa» sinonimoak dira baina ez beti: Hezkuntza arloan, mimoz begiratu beharko genieke bi hitzen arteko ñabardurei.

Utz ditzagun, behingoz, helburu berdinezale ezinezko horiek bazterrera. Ez diote onik egiten ikasleei, baina ez digute onik egiten ez familiei ez guri geroni ere. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ALBERTO OFICIALDEGUI. NAFARROAKO ERREGE ARTXIBO NAGUSIA

«EGA» AUTOBUSA 1920KO UDAN

Alberto Oficialdegui (Artaxoa, 1872-1941) Iruñerriko Oltza zendeako Ibero herriko parrokoak egin zuen argazki hau 1920an, autobusa Iberotik abiatu zenekoa, dirudienez, bere kapela ondo ikusteko moduan azken ilaran doan beste elizgizon baten agurrean. Kanpoan beste apaiz bat dago argazkilariari begira. Ibilbideak Iruñea, Etxauri, Deierrri bailara, Lizarra eta, helmuga, Lerin hartzen zituen. Argazkiaren egileak autobuseko sabaian ekipajearen ondoan eta banku luze batzuetan dauden bidaiariak erakusten dizkigu, udako hilabeteetan ohikoa baitzen bertan bidaiatzea. Autobusaren aurrealdean dagoen kobratzailea motorra abiarazteko biradera batekin ageri da. Autobusari "El Ega" esaten zion jendeak, eta Larragako familia batena zen.

ireki gure leihua



GAUR8

